



ARGIA

EUSKAL HERRIKO
MUGIMENDU SOZIALISTA

Komunismoa helburu

24-29. orriak

2.000 lagun inguru
batu zituzten
Altsasun GKS eta IA-k
antolatutako Gazte
Topaketa Sozialistetan.

#2.763 | 2022 / 01 / 23 | 3,90 €



**Europak suntsituko
duen hurrengo
arraina**

12 | SEYCHELLEETAKO ATUNA



**“Aurrera egitea
bizitza-aukera
bat da”**

14 | OIER LAKUNTZA




**“Musika munduan
musika jotzea ez dela
nahikoa dirudi”**

44 | GERA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #270
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ANOREXIA

BESTELAKO GERTURAPEN BAT

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
GEDAR

Iritziak

- 19 | BALEREN BAKAIKOA
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | MATI ITURRALDE
- 21 | EVA PEREZ-PONS
- 22 | RUBEN SÁNCHEZ

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA: NEKANE ZUBIRIAIN
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



DAVID F. SABADELL

30 | MIREIA VEHI

Kataluniako CUP alderdi antikapitalista eta independentista ordezkatuz, Espainiako Kongresuko kidea da Vehi. Ezkerretik kritikatu du gobernuaren orain arteko jarduna eta aurrera begira eraginkorrak izan daitezkeen bideez mintzatu da Saioa Baleztenak egin dion elkarrizketan.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

**Seychelle ingurueta-
atunak ahitzen ari da
Europako arrantza
industria
eta euskaldunok
tarte gaude**

Pello Zubiria

14 | PERTSONAIA | OIER LAKUNTZA

**“Ikasle gisa izan naiteke
itsu, baina itsu bat ezin da
irakasle izan?”**

Miren Artetxe

24 | POLITIKA

**Euskal Herriko Mugimendu
Sozialista**

Xabier Letona

34 | GIZARTEA | KANPAIGILEAK

Soinu perfektuaren maisuak

Jon Goikouria

37 | NAZIOARTEA

**“Estatu Islamikoak eta
Turkiak mentalitate atzerakoi
eta patriarkal bera dute”**

Aitor Aspuru

44 | KULTURA

Pilula progresiboak

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoien,
Jon Torner, Lander Arbelaitz,
Leire Artola, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Peru Iparragirre, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta,
Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gasteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure
egile eta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi duguz.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Futbol eta diktadura modernoak

Gizonezkoen Espainiako Superkopa Saudi Arabiako hiriburu Riaden jokatu dute. Emakumeena Madrilan egin dute. Baina gizonezkoena izan da "Berdintasunaren Superkopa", Espainiako Federazioko presidente Rubialesen hitzetan. "Badirelako desberdintasunak dituzten herrialdeak, baina han bizi diren gizon eta emakumeak laguntzen saia gaitzke. Bizkarra emango al diegu?". Bizkarra ezezik, izena, buru eta bihotza eman dizkiote kontsulatuetan kazetarien gorputzak laurgitzea maite duen diktadura horri. Sportwashing ariketa borobil eta surrealista horretan, euskal herritarrez osatutako talde bakarrak parte hartu du. Kritikarik egin gabe, baina pare bat edo hiru milioi euro gehiago poltsikoratuta.





R.F.E.F.
SUPERCOPA



REAL FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE FÚTBOL
1980

Mirentxin kolektiboak bidaiak egiteari utzi dio

URKO APAOLAZA AVILA

Mirentxin boluntarioen taldeak azaldu duenez, Etxerat elkarteak adierazi die jadanik ez dela euren laguntzarik behar euskal presoek bisitak egiteko bidaietarako, preso gehienak gertuagoko kartzeletara hurbildu dituztelako. 1999an sortu zen kolektiboa eta urtero 700 gidari baino gehiago aritu dira boluntario lanetan senide eta lagunak kartzeletako bisitetara eramaten.

1999an sortu zen, senarra preso zuen Mirentxin Aurrekoetxearen omenez. Geroztik, urtero 700 boluntariotik gora aritu dira gidari

"Bukatzeke jaio zen Mirentxin, eta, zorionez, bukatu da". Hala adierazi dio *Berría* egunkariari Iñaut Zabala Mirentxinen Hernaniko koordinatzaileak. Behin urruntze politika aldatuta, preso gehienak gertuagoko kartzeletan daude eta senideak euren kabuz moldatzen dira jadanik.

Mirentxin sortu zen senarra Algecirasen preso zuen Mirentxin Aurrekoetxea Mungiako senidearen omenez, astero-astero egiten baitzion bisita, eta hari laguntzeko antolatu ziren. Geroztik, urtero 700 boluntariotik gora aritu dira gidari. Haien furgonetek –bederatzi furgoneta izatera iritsi dira– urtero 100.000 kilometro baino gehiago egin dituzte bidaia horietan eta "oso gutxitan egin dugu kale".

Sarritan asteburu osoa irauten zuten bidaia luzeak egin dituzte urte guztiotan, eta zerbitzua ez da soilik garraioarena izan, senideen harremanetarako ere bai, elkarrekin bidaiatuz: "Mirentxinekin bidaiatzea terapia ere bada; denok gaude egoera berean eta gaitzari aurre egiten laguntzen du", azaldu zion Izaskun Usandizaga senideak ARGIAri haiekin duela urte batzuk egindako bidaia-kronikan.

2021eko maiatzean egin zuten azken bidaia: "Algecirasera, oker ez banago, eta harrez geroztik hau bukatu da", azaldu dio Donostiako arduradun Karlos Abadek *Berriar*i. Jarduera amaitu badute ere, ez dituzte furgoneta guztiak kendu eta talde batzuk antolatuta dituzte, "badaezpada". Haien beharrik ez izateko esperantzaz, hala ere. ●



AHTaren lanek 28 iturburu urik gabe utzi dituzte Gipuzkoan

LEIRE ARTOLA ARIN

Arrasate eta Elorrio artean dagoen Udalaizteko tunelaren lanek eragin dute azkeneko galera: Angiozarko baserri bat hornitzen zuen iturburu lehortu da eta, ondorioz, kamioi bidez eraman behar dute ura bertara. Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrean aurkeztu ditu datu horiek txosten batean.

EH Bilduko Unai Fernandez de Beitoño legebiltzarkidearen eskariz, Jaurlaritzak txosten bat aurkeztu du Legebiltzarrean, AHTren lanek Gipuzkoan lehortutako iturburuak zerrendatzen dituena: 28 dira guztira. EH Bilduk Jaurlaritzari galdegin dio Angiozar bailarako baserri baten ur-hornidurari buruz, eta arazoa baieztatu du Iñaki Arriolak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak: AHTren Udalaizteko tunelaren eraikuntza dela-eta Olaiturri iturburu lehortu da, eta Goronsarri baserria ur-hornidurari gabe utzi du, besteren artean abeltzaintzarako beharrezkoa dutena.

Eldiario.es atariak jakinarazi duenez, urriaz geroztik kamioi bidez igortzen dute ura baserrira. Angiozar bailarako beste hamalau etxek ere inguruko iturrietatik jasotzen dute ura, eta kezka dute berbera gertatuko ote zaien. Aipatzekoa da 300 biztanle inguru dituela Angiozarrek eta abeltzaintza dela jarduera nagusia. Arriola sailburuak aurreikusitako "denboraldi batez" ur-horniketako kamioi bidez egin beharko dutela baserrira, baina ez dakiela emaria itzuliko den lanak bukatutakoan: "Adifek aztertu beharko du nola lehenagoratu kaltetutako zerbitzua".

AHTren Arrasate-Bergara-Elorrio loturako eraikuntza Adifen esku dago, zati hori Espainiako Estatuak finantzatzen baitu. Gipuzkoako gainerako zati gehienak Jaurlaritzak kudeatzen ditu, eta hor ere atzeman dituzte ur-emarrietan arazoak. Hainbat baserrietako eta herritako ur-hornidura kaltetu du trenbidearen eraikuntzak, dokumentuan azaleratu denez. ●

Vir bonus dicendi peritus



ARITZ GALARRAGA

Penelope bere gelatik jaitsi da jauregiko areto nagusira. Kantari bat dago bertan ezkon-nahi taldea entretenitzen, heroi greziarrek etxera bueltako bidaian jasaten dituzten gorabeherak kantatzen. Gai hori ez duenez gustuko –oroï bere senar Ulises ez dela oraino Troiatik itzuli–, beste gai bat aukera dezaten eskatzen die, baina une horretan berean Telemako seme gazteak moztzen dio: “Ama maitea, joan zaitetz etxe barrura eta egin itzazu dagozkizun lanak. Kontakizuna gizonen esku egongo da, hots, nire esku. Nirea da, beraz, etxearen gobernua”. Eta goiko solairuko gelara erretiratzeko da Penelope. Gizonezko batek emakumezko bat isilarazten duen lehen adibide dokumentatua litzateke pasarte hori, Homeroren *Odisea*-n agertu zena, orain ia hiru mila urte. Gizonezkoek emakumezkoak isilarazteak ez du etenik izan gaur egunera arte. Mary Beardek azaltzen digu, zeinen sakonki dauden barneratuta emakumeak isilarazteko mekanismoak mendebaldeko kulturaren, eta zeinen aspalditik: diskurtso publiko eta oratoria maskulinitasuna genero gisa definitzen zuten praktika eta gaitasun eskusiboak ziren, gizontasunaren ezaugarri definitiboak. Erromatarren garaian jada, non eliteko hiritarrak eslogan honen arabera definitzen ziren: *vir bonus dicendi peritus*, alegia, diskurtsoan abila den gizon on bat. Ondorioz, publikoan hitz egiten zuen emakume bat ez zen, definizioz, emakume.

Asko dira zutabeotan agertu diren emakumezkoak, Annie Ernaux, Marie Darrieussecq, Marta Sanz, Hannah Arendt, Agnes Heller, Ingeborg Bachmann, Marisa Madieri, Irene Nemirovski, Agota Kristof, Natalia Ginzburg, ikasturte honetan bakarrik. Baina ez aski. Gehiago izango dira hemendik aurrera. Eta horrek ekarriko du gizonezkoak gutxiago izatea. Aldaketa guztiek dakartzate irabazleak eta galtzaileak. Eta aldaketa honetan gizonezkoak dira galtzaile, gizonezkoak gara. Guztiok irabazle izateko, bistan da. ●



Txillardegia

Jose Luis Alvarez Txillardegiren heriotzaren 10. urteurrenean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte; tartean, prentsan argitaratu zituen kroniken liburua aurkeztu dute. Urtero legez, haren omenez elkartu ziren Donostiako Txillardegia plazan, Txillardegia Udal Liburutegia herri ekimenak antolatuta.

Esklerosia

Esklerosi anizkoitza sortzen duen birusa aurkitu du ikerketa batek: mononukleosiaren berbera da. Harvardeko Unibertsitateko zientzialari talde batek ondorioztatu du “seguruenik” Epstein-Barr birusak eragiten duela. Gaixotasun degeneratiboa saihesteko aurrerapausotzat jo dute.

Indarkeria matxista

Urtarrilaren 10ean 38 urteko emakume bat hilik aurkitu zuten Tuteran, indarkeria zantzuak zituela. Haren bikotekidea desagertuta egon zen, baina jendarmeez Bodeletik gertu atzeman zuten azkenean. Iaz indarkeria matxistaren eraginez bost emakume hil zituzten Euskal Herrian, eta 2003. urtetik jada 112 dira eraildako andreak.

Jostailuak



ULA IRURETAGOIENA

Seme-alaben logela oso bat dut plastikozko jostailuz beterik eta ez dakit zer egin, kontatu dit lagun batek. Zenbat diru eta zenbat plastiko zabor pilaturik; hau guztia beharrezkoa al zen?, gaineratuz. Gabonetako gehiegikeriak ekartzen duen gogoeta. Jostailu-opariak aukeraketa ez da edozein erabaki, balore, identitate eraikuntza eta heziketarako gailu boteretsuak baitira –arisku eta aukera, aldi berean–.

Zeinen garrantzitsuak diren irabazigaldu jolas-lehiaketaren ondoan, norberaren irabaztearekin batera taldeak irabazten duela jolas-araua txertatzen duten jostailuak. Zenbat ikuspegi eraldatzeko balioko lukeen lehiakortasun indibidualaren kontrako arau honek, interdependentziarako eta elkarbizitzaren ulermenerako gako baita.

Taldekidetasuna lantzeko leku izateaz gain, genero-rol ikerketa askoren hizpide izan dira jostailuak, eta lotura zuzena egiten da generoaren eta profesio-rolen artean. Eraikuntzara eta arkitekturara bideraturikoak, rol maskulinoarekin lotu ohi dira (!), profesioaren gaineko aurreiritzi segida emanez. Edozein jostailudendak antzetzten ditu genero rol kategoria hauek, XXI. mendean oraindik ere.

Arkitekto batek, sentsibilitate material eta estetikoaren heziketa espezifikoa gatik, jostailuen aukeraketan begirada propio bat gaineratu dezake. Egurrez eta piezez osaturiko jostailuak izango ditu gogokoan, eta kolore primarioetatik aldendu edo kolore gama aberatsa eskaintzen duenetara joko du. Pieza geometrikoek zeregin abstraktua eskaintzen diote jostailuari: jolas-araua librea da eta haurrak zehaztuko du –lehiakortasun maila txikituz–, kolore gama zabalak genero atxikipena albratzten du, irudimena bultzatzen du piezekin gauza asko egin daitezkeelako eta adin tarte zabalerako erakargarria da. Jostailu didaktikoen atalean aurkitzen dira.

Jostailu didaktikoa, baina, ez da iragarrietan agertuko, eta denok dakigu haurraren jostailu aukeraketan zenbateko indarra duen lagunek baloratu dezaketena izatea. Auzia ez da erraza kudeatzen. ●



Immunologoen zalantzan jarri dute hirugarren dosia

ESTITXU EIZAGIRRE

Txertoaren hirugarren dosia abian da eta laugarren dosia ere ezarriko zaie arrisku taldekoei. Txertoek indartzen dituzten antigorputzak denborarekin galdu egiten dira, eta hori da errefortzu dosiak banatzen jarraitzeko argudioa. Antigorputzak bi modutara eskuratzen ditu gorputzak: gaixotasuna pasa duelako edo txerto bidez sartu zaizkiolako. Antigorputz neutralizatzaileek eragozten dute birusa zeluletara sartzea eta gorputzak infekzioa izatea, baina antigorputz horiek epe mugatuan izaten ditu gorputzak. Txertoaren hirugarren dosiarekin, hein batean, gorputzak gaitasun hori berreskuratzen du –hainbat ikerketen arabera, hirugarren dosia hartuta, antigorputzek Omicronen aurrean %60ko eraginkortasuna berreskuratzen dute–. Baina hilabete batzuk geroago, berriro ere antigorputz hauek galdu egiten dira.

IMMUNITATE ZELULARRAK IRAUTEN DU, ORDEA

Gorputzak gaitzei aurre egiteko erreminta bat dira antigorputzak, baina ez bakarrik. Immunitate zelularra ere badu gorputzak, T zelulen bidez batez ere eta honek memoria dauka: iraganean gaitza pasatu duten edo txertoa hartu duten gorputzetan, immunitate zelularra martxan jartzen da gaitzarekin berriz topo egiten denean. África González immunologian katedradunak azaldu duenez, “zure antigorputzen maila jaitsi egin bada gaixotu egin zaitezke, baina zure memoria immunitarioa martxan jartzen da (hiru eta bost egun artean behar ditu) eta berriz antigorputzak eta memoria zelulak sortzeari ekiten diozu; horrela, azkar buelta ematen zaion infekzio txiki bat pasatuko duzu. Baina txertorik hartu ez baduzu edo ez baduzu aurrez birusa pasatu, ez duzu memoria hori garatuta eta infekzio larriagoa izan dezakezu”. Immunologo hauen arabera, immunitate zelularra aktibatzeke ez da hirugarren txerto dosirik behar, eta herritar denei etengabe errefortzu dosiak jartzearen aurka daude. África Gonzálezek ohartarazi duenez, behin eta berriz dosiak jasotzeak “ez du zentzurik eta ez da gomendagarria. Sistema immunitarioa akitu daiteke”. Gómez Rialen arabera, “ikuspegi immunologikotik, zentzugabekeria da biztanleria osoarentzako estrategia orokor moduan”. Zaurgarrien kasuan zentzua izan lezakeela dio, baina komeniko litzatekeela txertoa Omicron aldaerarako egokitzea eta estuki ikertzea txertoen eraginkortasun galera, alferrikako dosiak ematea saihesteko. ●

18.000

hegaldi huts edo ia huts egin ditu neguan Lufthansak, aireportuetako ordutegi eskubideak ez galtzeko. Bere jabetzakoa den Brussels Airlines konpainiak 3.000 hegaldi huts edo ia huts egin ditu.

3

langile hil dira Euskal Herrian, urtea hasi denetik. Hilabeteko epean, lanean zirela altueratik erorita hiru pertsona hil dira, eta joan den astean arrazoi beragatik larriki zauritu dira beste bi.

60 milioi

eurotik gorako gastu publikoa irentsi du 2010etik Los Arcos-eko Zirkuitoak. Nafarroako Kontuen Ganbarak aztertu du autoen abiadura zirkuituaren kudeaketa ekonomikoa, eta ondorioa oso kaltegarria da Nafarroako Gobernuaren diru-kutxarentzat.

“Teknologia digitalekin herri hau domestikatzeko aukera aurkitu dute, gaur osasunaren eta bihar ekologiaren izenean”

FRANÇOIS RUFFIN

La France Insoumise-ko diputatua kezkatuta dago demokrazia mespretxatuarekin eta digitalarekin, gobernuak COVID-ari begira aldarrikatzen duen guztiarekin.

REPORTERRE (2022-01-06)



“EZ GAUDE PREST EZ DAGOZKIGUN ARDURAK HARTZEKO. OSASUN ARDURADUNEI DAGOKIE OSASUN ERABAKIAK KUDEATZEA”

IKASTOLEN ELKARTEA

2022-01-14

“Irakurtzen ikasteko erabiltzen den metodologia silabikoak morrontza ikaragarria sortzen du, irakurri beharreko hori dekodifikatzen jartzen du arreta ikasleak, eta ez du edukian behar bezala erreparatzen”

GORKA AURRE

Prakagorri elkarteko zuzendariaren hitzetan, ikasleen gehiengo zabalak ez du ongi irakurtzen eta horrek bai ikasketetan bai bizitzan oro har eragin handia du.

ARGIA (2022-01-11)



Pertzepzioaren bitartekariak



DIANA FRANCO

Txikitan gure alabak argi beltza deitzen zion iluntasunari. Iluntasuna argi eza bezala ulertu beharrean beste argi mota bat bezala ulertzen zuela zirudien. Zientzialariek aspaldi frogatu zuten ikusi dezakeguna materia, argia eta gure begien arteko interakzioei lotuta dagoela. Baina alabaren bizi esperientzia txikian, argi ezaren ideia ez zen oraindik existitzen.

Urte batzuk geroago, Von Goetheren koloreen teoria ezagutu nuen. Goethek zioen naturaren ulermenaren esperientziatik etorri behar zela, gure gorputzetan ditugun zentzuak horretarako garatuak izan direlako. Natura ulertzeko, berau zatitan txikitu beharrean naturaren behaketa bere osotasunean egin behar zela zioen. Baina gizakion historian zehar, behaketa txikiak eta laginen datuen bilketa gako izan dira. Baita inguru kontrolatuak sortzea ere, gertaerak baldintza jakin batzuetan errepikatzen eta aldaketekin ezagutza garatzeko. Horrela sortu da gaur egun dugun teknologia ugari.

Gure egunerokoan ideia bera sartzen ari gara: eremu digitalean sortzen gabiltza kirol inguruneak, hilerokoa kontrolatzeko inguruneak, bikote onena hautatzeko inguruneak... Logika berdinarekin diseinatuta daudela dirudi. Inguru kontrolatu horietan jasotzen ditugun datuak gizakion garapenerako ezagutza berria ekarriko dutela pentsatzen dugulako? Goetheren pentsatzeko modua, ordea, ezin dut burutik kendu azkenaldian, eta iruditzen zait inguru horiek guztiak nolabait gure gorputza ez entzuteko dinamika daramatela beren baitan. Pertzepzioaren bitartekariak bailiran.

Ez dakit inoiz gure gorputza entzuteko gaitasuna ondo garatua izan dugun gizakiok, baina pertzepzioaren bitarteko hauek guztiak oztopo izan daitezke zeregin horretan, erabiltzen dituenak aurretik bere gorputza entzuteko gaitasun hori garatzeko tartea izan ez badu behintzat, bere gorputza naturarekin harramantzeko esperientzia izan ez badu behintzat. ●



EFE

Djokovic eta pertzepzio soziala

AXIER LOPEZ

Novak Djokovic Australiatik kanporatzea erabaki du Auzitegi Federalak. Australiako Gobernuak tenislari serbiarraren bisa bigarren aldiz balio gabetzeko hartu zuen erabakiaren aurkako helegiteak ez du aurrera egin. Erabakia aho batez hartu dute Auzitegi Federaletako hiru epaileek. Horren ostean soka luzatu da eta adibidez, Frantziako Gobernuak adierazi du tenislariak ezingo duela parte hartu Roland Garrosen.

Australiako epaiaren funtsa da herritarren bisak balio gabetzeko Imigrazio ministroak – Alex Hawke – duen ahalmena, baldin eta pertsona horiek "interes publikoaren" edo "osasun eta ordenaren" interesen aurka egiteko arriskurik bada. Nahiz eta Australiako Gobernuak onartu duen Djokovicek norbait koronabirusaz kutsatzeko arriskua "hutsala" dela, infekzio batek atera berri delako, Hawkek justifikatu du "txertoen aurkako bere jarra argiak" istiluak eragin ditzakeela kirolaz kanpoko arazoiek bultzatuta. Bestalde, Djokovicen abokatuek argudiatu dute zentzurik ez duela Hawkek azpimarratu izanak Djokovic Australiaren egoteak izan lezakeen eragina, eta, aldiz, haren deportazioak eragingo duena alboratzeak.

Asteotako esperpento mediatikoa eta monologo zuri-beltzaren gaintik kasuaren alderdirik interesgarriena beste bat da. Agintariek adierazi dute ez daudela kezkatuta Djokovicek txertaketari buruz omen dituen iritziekin, baizik eta iritzi horien pertzepzio publikoarekin. Hau da, iritzi jakin bati buruz herritarrek pentsa dezaketena (eta, agian, horren ar-

bera jardun) bultzatuta mugitu da gobernuak. Ikuspegi horrek eraman du Djokovicen kasua beste eremu mal-kartsuago batera.

Auzitegi Federaletan erabakia Migrazio Legearekin bat datorrela dirudi, baina etorkizuneko inplikazioak zalantzak eragiten ditu. Australiako Monash unibertsitateko irakasle Maria O'Sullivanen arabera, lehenik, ez da bidezkoa beste batzuen pertzepzioak edo ekintzak arrazoi nahikoa izatea edonor herrialde batean egotez ez uzteko. Hau da, iritzi publikoak jokaera edo iritzi jakin batekin hautesman dezake pertsona bat, baina horrek ez du esan nahi pertzepzio hori zuzena denik. Pertsona horrek garai horretan pentsatzen duenarekin ez du zertan bat etorri, eta, hala ere, pertsona horri bisa ukatu egingo liokete. Bigarrenik, Australiako ministroak "goi mailako kirolari gisa, Djokovicek gizartean eragiteko duen gaitasuna" azpimarratu du. Zer gertatuko da kirolari batek txertorik hartu ez badu, baina profil handikoa ez bada? Non dago onargarriaren eta arbuiagarriaren arteko muga? Ospearen arabera?

Eta azkenik, O'Sullivanen arabera kezkarriena, logika hori gizartean "eragiteko gaitasuna" duten orangana hedatuz gero, Gobernuak "protesta eragileztat" jotako edozein pertsona herrialdetik kanporatzeko baliu liteke. Iritzi batek Australiako komunitatearen osasuna, ordena eta segurtasunean eragin txarra izan dezakeelakoan, bisa bertan behera uzteko arazoak bilakatzeak adierazpen askatasunarekin lotutako arazoak ere sortzen ditu. ●


Munduko hamar pertsona aberatsenek beren fortuna bikoiztu dute pandemia hasi zenetik

Aurrekaririk ez duen egoeran, COVID-19aren pandemia lehertu zenetik igaro diren bi urteotan, munduko hamar gizonik aberatsenek bikoiztu egin dute beren fortuna -700.000 milioitik 1.5 bilioira-, gizateriaren %99aren diru-sarrererek behera egin duten bitartean. Horrek esan nahi du hamar pertsona hauek 15.000 dolar poltsikoratzen dituztela segundoro, edo 1.300 milioi egunero. Bi urteotan beste 160 milioi pertsona pobrezia egoeran murgildu dira, epe horretan.

Urtez urte, aberastasuna esku gero eta gutxiagotan kontzentratzen joan da: 2014an, 85 pertsonak munduko 3.600 milioi adina zuten; 2016an, 62 pertsonak 3.600 milioi adina; 2017an 43 pertsonak; 2019an, 26k; eta 2022an 10ek.



252 gizonek aberastasun handiagoa dute Afrikako, Latinoamerikako eta Karibeko 1.000 milioi emakumek dutena baino.



Lau segundoro pertsona bat hiltzen da munduan, berdintasun ezak eraginda.



Kalkulatzen da aberatsenen artean dauden hogeitaz pertsonetako bakoitzak 8.000 aldiz gehiago kutsatzen duela 1.000 milioi txiroenen artean dagoen edozein herritarrek baino.



Urtean milioika tona janari alferrik galtzen den bitartean, 2,1 milioi pertsona hiltzen da gosez munduan.



SEYCHELLE INGURUETAKO ATUNAK AHITZEN ARI DA EUROPAKO ARRANTZA INDUSTRIA ETA EUSKALDUNOK TARTEAN GAUDE

Indiako ozeanoko atun hegats-horia desagertzeko bidean dago eta ez inguruko –Seychelleak, Somalia, Kenya...– arrantzaleen kulpaz, baizik eta Europar Batasunako itsasontzi-faktoriek suntsituta. Atun ontziratua hainbeste maite duten europarrak, beren ingurukoak kontsumitu ostean ur horietakoak ari dira ahitzen. Euskal herritarrek jakin beharko lukete horren berri, hemengo arrantza industria ere badagoelako artean.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Red flag: *Predatory European ships help push Indian Ocean tuna to the brink* (“Bandera gorria: Europako itsasontzi harrapariak Indiako Ozeanoko atuna galbidera daramate”). Horra titulu gordin bat laburbiltzeko Europako arrantza industria bere mugetatik urrun eragiten ari den hondamendi ekologikoa. Ingurumen eta kontserbazio kontuetan munduan erreferentzietakoa den *Mongabay* hedabideak argitaratu du, Malavika Vyawahare kazetari indiarrak sinatuta. Kronika osatzen du bigarren honek: *European tuna boats dump fishing debris in Seychelles waters ‘with impunity’* (“Atunetan ari diren ontzi europarrek Seychelleetako uretan lagatzen dituzte arrantza-tresnen hondakinak ‘inpunitate osoz’”). *Mongabay*-ren erreportaje irakurrietakoak izan dira 2021ean. Ez da izango euskaldunok oihartzun handia egin diegulako.

“Europar Batasunak kontrolatutako ontziek hiru hamarkada baino gehiago daramatzate arrantzatzen eskualde honen ondasun handienetakoa den atun hegats-horia (*Thunnus albacares*). Orain atun kopurua ia hondoa jotzeko mugan dago eta gehiegizko arrantza geldituta, hura biziberritzeko planek huts egin dute”. Krisi ekologikoa bideratzeko martxoan EBk eta Indiako Ozeanoko Atunaren Batzordeak (IOTC ingelesezko sigletan) burututako negoziaketak ere porrot egin du, Vyawahareren esanetan.

Atun arrantzak milaka milioi fakturatzan ditu urtero eta gaur egun munduko arrantza leku oparoena Indiako Ozeanoa da, zehazki Mendebaldekoa, Seychelleetako uharteen eta Afrika ekialdearen arteko itsasoa: urtean 1.000 milioi dolar (881 milioi euro) inguru mugiarazten du hemen harrapatutako atunak. Atlantikoko hegaluzte eta hegalaburrak ahitu ahala, Afrika ertzecko ur horietara jo zuten Europako ontzidiek, funtsean Frantzia eta Espainiakoe, europarrek apetitu handiz kontsumitzen duten arrain honen xerka. Atun hegats-horiz gain, lanpo sabelmarraduna (*Katsuwonus pelamis*) eta atun moja (*Thunnus obesus*) ere arrantzatzen dituzte.

1982an Nazio Batuen Erakundeak estatuei aitortu zienean beren inguruko 200 milietako uren jabegoa, altxor izugarri horrekin egin zuten topo Seychelleek, Madagaskarrek, Mauriziok, Komoreek.... Eta herrialde txirook arrain saldo handiok ustiatzeko azpiegiturarik eta teknologiarik ez zeukatenenez, laster hurbildu zitzaizkien laguntzera europarrak... Lehen nagusi kolonial izandakoak, arrantza eskubideen truke dirulaguntzak eskainiz. Adibidez, Seychelleek gaur egun, azken hitzarmenarekin, urtean 5,3 milioi euro jasotzen dituzte EBren ordaintzat. EBko itsasontzien jabeek, gainera, harrapatutako atun tona bakoitzeko 80-85 euro pagatzen diete

Seychelleei. Atunetan ari diren bapore modernoak, munduko itsasontzi-faktoria handienetakoa direnak, inguratze arrantzan aritzen dira: bi kilometro arteko sareak ur azalean zabalduta inguratzen dute arrain saldoa. Europar Batasunari dagokionez, urotan hamabost itsasontzi ari dira Espainiako banderarekin eta hamabi Frantziakoarekin.

HARREMAN NEOKOLONIALA

Beste hamahiru gehiagok daramate Seychelleetako bandera, Europarren jabetzakoak izan arren. “EBren dokumentazioak erakusten duenez –dio Vyawaharrek– Pesquería Vasco Montañesa SA (Pevasa) konpainiak, berea du Playa de Anzoras ontzia. Albacora SAk hiru ontzi darabiltza Seychelleetako banderapean, S. Echebasterrek hiru, Inpescak bi eta Atunsak bat. Denak Espainiako Euskal Herrikoak (Spain’s Basque Country) dira, betidanik Europako arrantza industriaren gotorlekua izan denekoak”.

Badabiltza, noski, EBkoak ez diren bapore gehiago Mendebaldeko Indiako Ozeanoan, *Mongabay*-k aipatu ez dituen arren. IOTCk bere txostenetan aipatzen ditu Koreakoak, Japoniakoak eta batik batik Txinakoak, batzuk inolako baimen eta kontrolik gabe arrantzan ari direnak.

Arrantza intentsiboaren eragina fite azaleratu da: IOTCk txosten batean esana du atun hegats-horiaren kopuruak



'BELOUVE'

ontzia Seichelleetako Port Victorian. Konpainia frantses batena izanik, Maurizioko banderapean dabil. Ondoan, bertako arrantza ontzi artisanal bat. Argazkia: Seychelleetako Gobernuua.

kolapsoan sartu daitezkeela 2026rako. IOTCk berak 2016an jarri zuen martxan atuna berreskuratzeko plana, bertara doazen ontziei ezarri harrapaketak %15ean murriztea. Baina agentziak iaz bertan aitortua zuen gutxienez ondoko urteetan kopuru horien gainetik harripatu zutela EBkoek, zehazki Espainiak 2018an harripatuaren %30ren berri ez zutela eman.


Vyawaharek jaso du Espainiako baporen patronala den OPAGACen iritzia ere: "1960ko hamarkadatik hasita, konpainiek asko inbertitu dute herrialde horietan, bai arrantza ontzietan eta bai prozesatzeko lantegietan. Atunaren industria garatu dute Seychelleetan, Maurizion, Madagaskarren eta Kenyan, 15.000 lanpostu sortuz".

Kontua da Europako arrantza industria boteretsuaren lana gainbegiratzeko ahalmen gutxi daukela Seychelleetako bezalako gobernu batek, urtean 350 milioi euroko aurrekontu ximur batekin. Nola kontrolatu itsasontziek betetzen dituztela kontrol neurriak, esaterako etengabe beren posizioak jakinaraztea edo non zenbat arrain lehorreratu duten osorik aitortzea? Nola saihestu itsasontziok uretan galtzea inguraketa arrantzan erabilitako plastikozko tramankulu asko, biodibertsitate handiko ur eta kostaldeak kaltetuz?

Horrela, atun hegats-horiaren harripaketak jarraitzen du *business as usual*. Arrantza industrialak milaka milioiko dirulaguntzak jaso ditu azken bi hamarkadetan, EBrenak eta Espainia eta Fran-

tziarenak. 2020an 100 zientzialari baino gehiagok publikoki salatu zuten horiek erabili direla "gehiegizko arrantza sustatzeko eta itsasoaren hondamendia areagotzeko".

Malavika Vyawahare: "Seychelleetan atuna ontziratzen duen enpresa handienak –Indian Ocean Tuna Ltd.– ondo irudikatzen du zenbateraino den berdintasun gabea hemengo herrialdeen eta Europaren artean atunaren bueltan antolatutako harremana. Bere jabea da Thai Union/M.W. Brands, atuna ontziratzen liderra eta egoitza Thailandian dauka. Atun ia guztia erosten die EBko baporeei; atun gehiena bidaltzen du EBra zergarik ordaindu gabe eta gehien bat kanpotik ekarritako langileak enplegatzen ditu". ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



Oier Lakuntza

GAITASUNA



IKASLE GISA IZAN NAITEKE ITSU, BAINA ITSU BAT EZIN DA IRAKASLE IZAN?



Pantaila bidez baino, entzungailutik entzungailura konektatu gara. Hasi gara hizketan, eta ohartzerako elkarrizketa egin eman dit Oierrek. Zer den argi hitz egitea. Irakurtzera edo entzutera zoazen hau, izandako elkarrizketaren transkripzio literala da, ia.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  JOSU SANTESTEBAN

Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa?

Iruñea erdialdean bizi izan naiz beti. Hemen jaio nintzen eta hemengoak dira nire lehen oroitzapenak. Hemen eta Ur-diainen, txikitan asteburuak eta oporraldiak batez ere amaren herrian pasatzen genituelako. Bi leku horiekin lotzen dut haurtzaroa. Eta txikitako oroitzapenekin lotzen dut sindromearen kontua ere. Lehen sintoma diabetesa izan zen. 4 urte nituen lehen motako diabetesa nuela ohartu zirenean. Eta Wolfram sindromearen diagnostikoa, berriz, 6-7 urterekin iritsi zitzaidan. Nahiko goiz izan zen. Gurasoek ez zidaten sindromeaz zekiten guztia orduan aipatu. Neukanak izen bat

zeukala esan zidaten, baina ez zidaten esan itsu eta gor gelditu nintekeenik. Hori denborak utziko zuen agerian.

Nola duzu gogoan diagnostiko haren garaia?

Gaixotasunaz beraz baino gehiago gaixotasunaren eraginez gogoratzen naiz ni. Eskolan bazkaltzen nuen garai hartan, eta diabetesa zela eta intsulina zitzadak behar izaten nituen eguerditan. Ama ikastolako langilea zen eta berarengana joaten nintzen horretarako. Dieta berezia ere baneukan, eta bazkalorduan ez nuen besteek jaten zuten berdina jaten. Hor sentitu nituen lehenengo deserosotasunak.

Laster hasi ziren bestelako sintomak ere garatzen, eta sumatzen nuen ikusmen eta entzumen arazoak sortzen ari zitzaizkidala. Pixkanaka jendea galderak egiten hasi zen... Gogoan dut garai hura. Hasi batean sindromeak eragiten zidan guztia ezkututzen saiatu nintzen. Urteak eman nituen horrela, batxilergoan eskolaz aldatu nuen arte. Orduan erabaki nuen zailagoa izango zitzaidala ezkutatu nahia onartzea eta besteei jakinaraztea baino. Jende berria zen, ez ginen ikastolatik gindoazenak soilik, eta pentsatu nuen "ezagutu nazatela naitzen bezalaxe, ditudan gaitasun eta muga guztiekin". Horrek handik aurrerako



Oier Lakuntza Irigoien

IRUÑEA, 1985



Kimika kuantikoan doktore da eta ikerlari gisa egiten du lan. Bertsolaria ere bada, eta parte hartu berri du aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Wolfram sindromea dela eta, ikusmen eta entzumen urritasunarekin bizi da.

harremanak asko erraztu zituen. Eta baita ikastearen prozesua bera ere.

Nola moldatu zinen ordura arte, eta zer aldatu zuen erabaki hark?

Egia esan, ikasketan hasieratik izan nituen nahiko emaitza onak. Nire ekimengatik, ama ere irakaslea zelako eta ikastearen garrantzia transmititu zidalako... Ikasketak ez dira inoiz arazo izatera heldu. Baina, ikaskideekin ez nuen oso harreman erraza, nik nire ezintasunak ezkutatzeko gabezia horiek berak ikusgarriago egiten zituen haien begietara. Eta oso egoera mingarria zen niretzat.

Nik, nabaritzen nuen gero eta gutxiago ikusten nuela. Hasieran irakurtzeko nahiko ondo moldatzen nintzen, baina gero lupak erabiltzen hasi behar izan nuen, Lehen Hezkuntzako hirugarren edo laugarren mailan. Baina arbelean zegoena, adibidez, ezin nuen ikusi. Disimulatzen saiatzen nintzen, etengabe nire lekutik jaiki eta arbelera hurbiltzen nintzen han idatzita zegoena irakurtzeko... Desberdintasuna ikusgarri egin nahi ezak galarazten zidan lagunduko ninduten neurriak hartzea. Batxilergoan teleskopio txiki bat erabiltzen hasi nintzen, esaterako.

Eta entzumenarekin ere gauza bera. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan jantzi nituen lehen aldiz audifonoak. Hori ere sekulako gatazka izan zen. Aparatu horiek erabiltzeko arrazoia gehiago izan zen nire gurasoen ekina nire borondatea baino. Soluzio gisa baino gehiago traba eta ezberdintasun iturri gisa ikusten nuen, eta ahal bezainbeste atzeratu nuen kontua. Audifonoak erosteko zentrora lehen aldiz joan ginenean, bertako langileak nire audiometria ikusi eta ezin zuen sine-tsi nola moldatu nintzen ordura arte laguntzarik gabe, neukan entzumen urritasunarekin.

Bitartean, bertsotan ere ari zinen. Noiz eta nola hasi zinen kantuan?

Ez nuke esanen nire gurasoak bertsozale porrokatuak zirenik, baina Iruñean egiten ziren saioetara eramaten ninduten, Sanferminetan eta horrela. Gustura egoten nintzen. Saio batzuk ikusi ondoren nire kabuz bertso batzuk osatzen hasi nintzen. Gustatzen zitzaidan hitzarekin jolaste hori. Hitzak 7-6



edo 10-8an sartzearen jolasa izugarri dibertigarria iruditzen zitzaidan. Hori izan zen bertsolaritzarekin izan nuen lehen lotura. Gero, nik Paz de Ziganda ikastolan ikasten nuen, eta han bertso eskola bat zegoela jakin nuen. Unai Agirre zen orduan irakasle eta berekin hasi nintzen Lehen Hezkuntzako seigarren mailan.



Bizitza honetan bi aukera daude: norbere buruarekiko errukia sentitu, ala indarra bildu eta aurrera egin"

Gerora Unai unibertsitate ikasketak bukatu zituen, eta bertso-eskola hori desagertu zen, baina Iruñean bertso-eskola sortu zen Estitxu Arozenaren gidaritzapean. Gogoan dut nola kantatu nuen eskolarteko txapelketan eta zer nolako urduritasunak bizi izan nituen.

Bertso-eskolako giroak izugarri erakartzen ninduen. Eskolan ez neuzkan oso harreman goxoak nire gelakideekin, eta bertso-eskolan aldiz beti oso lasai eta gustura sentitu nintzen, hasiera-hasieratik. Talde txikia zen ikastolakoarekin alderatuta, pertsona



UNIBERTSITATEA INKLUSIBO?

"Geroz eta presentean dago inklusibitatearen kontua unibertsitatean, baina beti aipatzen da ikasleei begira, eta ez irakasleei edo bestelako langileei begira. Jende asko dago unibertsitate ikasketak egin dituen, doktoretza egin duena, baina bere ezintasuna dela eta unibertsitatean lan egiteko zailtasunak dituena. Ni, adibidez, unibertsitateko lan poltsetan izena emanda nago, eta une batean ala bestean dei nazakete eskolak emateko. Eta neuk galdetu behar izan dut ikasleentzako laguntza bulegoan ea ordezkapen bat egiteko deituko balidate lagunduko ote ninduketen, materiala egokitzen edo dena delakoan. Haien erantzuna izan da eurek ikasleei begira egiten dutela lan eta irakasleen kontuak ez direla haien ardura. Horrek asko mugatzen du nire burua unibertsitatean irudikatzea. Ikasle gisa izan naiteke itsu, baina itsu bat ezin da irakasle izan? Jorratu beharreko gaia da".

BANAKAKO ELKARRIZKETAK

"Lauzpabost pertsona elkartzen garenean eta bi pertsonak batera hitz egiten dutenean, zailtasunak ditut. Bi baldin bagara belarrira hitz egitea errazagoa da, tabernan izan ala edonon izan. Gaur egun ikusmenarena erabat asumiturik daukat, baina entzumenarenak buruhauste gehiago sortzen dizkit. Komunikatzeko arazoak eragiten dit animikoki gehien. Gaur egungo bizimoduan pertsona batekin buruz buru lasai hitz egiteko gero eta tarte gutxiago hartzen dugu, eta hori da nire beharrik behinena. Jendearekin hitz egitea izugarri eskertzen dut. Ez naiz asko hitz egiteko, baina gehiago ala gutxiago parte hartu, elkarrizketak jarraitzea gustatzen zait. Gaur egungo presakako bizitza azkar eta zaratatsuan horretarako giro lasaia topatzea kosta egiten da, zoritxarrez".

heldu batek gidatzen zuen, baina gaztea zen aldi berean; gai oso ezberdinei buruz hitz egiten genuen... Denok egiten genuen biluzte ariketa bat, bat-batean bertsoa botatzera ausartzen ginenean. Eta horrek errespetuzko giro bat sortzen zuen. Zuk badakizu besteak epaitzen badituzu besteek ere gauza bera egin dezaketela. Badago halako berdintasun nahitaezko bat. Gainera, guk kantatzen genuen bertso bakoitzean trabatzen ginen! Baina han ez zegoen ez errietarik ez trufarik. Eta horrek zu zeu izatera bultzatzen zaitu.

Aurten bertan kantatu duzu Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Nola bizi duzu gaur egun bertsoan aritzea?

Bertsotarako izan dudan eragozpen handiena, ikusmena baino, entzumenaren izan da, eta hala da orain ere. Gogoan dut zuk eta biok elkarrekin kantatu genuela Mungian, Euskal Herriko eskolarteko txapelketa bateko finalean. Frontoian zen saioa, eta oroitzen dut sekulako oihartzuna zegoela eta hitzak

ondo bereizteko komeriak nituela. Igor Elortza genuen gai jartzen, eta hark gaia jarri ondoren niri belarrira esan behar izaten zidan. Eta nire kantuki-deen esanak ulertzea izugarri kostatu zitzaidan. Azken ideia harrapatzen bannen, gaitzerdi. Oso zaila egin zitzaidan saio hura. Gero, ordea, banekien beste espazio batzuetan, bertso-eskolan bertan adibidez, oso gustura aritzen nintzela.

Estitxurekin eskolaz eskola kantatzen ere aritzen ginen eta saio horien oso oroitzapen onak ditut. Orduan konaturatu nintzen leku batzuetan kantatzeko eragozpenak izango nituela, baina bazeudela gustura kantatzeko moduko espazioak ere. Gainera, gerora, bertsozale elkarteari esker leku desegokietan ere ongi ulertzea ahalbidetu didaten baliabideak topatu ditut. Horrek guztiak eutsiarazi dit orain arte.

Zer zentzu dauka orain bertsolaritzak zure bizitzan?

Gasteizen lanean hasi nintzenean Arkaitz Goikoetxearen Lekunberriko ber-

tso-eskolako jarduna eten behar izan nuen. Baina bertsolaritzarekin harremanetan jarraitu nahi nuen, eta lehenengo urtean unibertsitateko ikasle batzuekin elkartu nintzen. Gerora, urtebetez egon nintzen bertso-eskolara joan gabe. Izugarrizko gabezia sentitu nuen! Orduan Iñaki Viñasprekin jarri nintzen harremanetan, eta hark esan zidan bazegoela helduen bertso-eskola bat, eta etortzeko bertara. Hasieran talde handi samarra ginen, batzuk hasi berriak eta beste batzuk bat-batean itxuroso egiteko gai ginenak. Eta bi talde egiten genituen. Iñaki hasiberriei laguntzen aritzen zen eta gu gure kabuz.

Gerora batzuk lan kontuengatik edo Gasteiztik alde egin zuten, eta talde txikiagoa gelditu ginen, batzuk hasi berriak eta besteok ez. Baina, han ibiltzen gara, batzuk bixiago, besteak motelago, tarte denok puntuka... Bertsoa gustuko dugun lagun talde bat gara. Bertsoaren beharra daukat. Pentsa, orain pandemiaren geroztik egun batzuetan etxetik lan egiteko aukera izaten dut eta astelehenetan Iruñetik egiten dudanez lan, Barañaingo bertso-eskolara ere joaten naiz.

Gasteizen egiten duzu lan, kimika kuantikoan ikerlari. Nolatan kimika? Nolatan kimika kuantikoa?

Hasi DBHtik eta Batxilergoa bukatu arte emaitza onak lortu nituen, bai zientzietan baita letretan ere. Zentzu horretan, ikusmen ezintasunaren gaiarekin lotura zuen jendeak izugarritzko ahaleginak egin zituen letretako zer bait ikas nezan. Baina ni momentu horretan zientziek harrapatuta nindukaten. Eta banekien momentu hartan probatzen ez banuen gerora probatzea ezinezkoa izango zela. Matematikak, fisikak, kimikak... oinarri sendo bat eskatzen dute, eta zenbakiekin eta formulekin jolasteko trebetasun hori albora uzten baduzu, handik urte batzuetara hori berreskuratzea zaila da. Beraz, banekien hura zela nire aukera bakarra. Zaila izango zela ere banekien, noski, eta ez nuen baztertzeko ikasketak hasi eta gero utzi behar izatea. Baina orduan kimika zen gehien gustatzen zitzaidan arloa eta saiatzea erabaki nuen. Dena ongi atera zen.

Karreraren ere, ikaskideek utzitako apunteei eta gurasoek ordenagailura pasatzeko etxean eskainitako laguntzari esker, emaitza onak lortu nituen, eta ikerkuntza munduan sartu-irten bat egiteko gogo sortu zitzaidan. Horrela hasi



nintzen doktoretza egiten. EHUko kimika teoriko eta konputazionalako taldeak beso zabalik hartu ninduen eta gustura egin nuen haiekin tesia.

Kimika kuantikoa aukeratu nuen, irisgarriena zelako niretzat. Baziren kimikan bertan atsegin nituen beste esparru batzuk, kimika organikoa, adibidez. Baina kimika organikoa oso lotuta dago laborategiko lanari. Eta kimika kuantikoa, aldiz, kimika teoriko eta konputazional gisa ere ezagutzen da, eta laborategian sartu beharrik gabe ikertu daiteke arlo horretan. Eta horrek niretzat abantaila argiak ditu.

Denboratxoa daramagu ezintasunaz, inklusibotasunaz eta bazterkeriaz hizketan... Zer da galdetu ez dizudana eta aipatu beharko litzatekeena?

Beti esan izan dut nire gaixotasuna ondo daramadala. Horretarako berebizikoa izan da nire gurasoen eta ingurukoena babesa. Badaude oztopoak, badaude zailtasunak, baina aurrera egitea bizitza-aukera bat da, denontzat. Nik badakit gauza batzuk ezin ditudala egin, baina ez daukat haiei begira egoterik. Bizitza honetan bi aukera daude: norbere buruarekiko errukia sentitu, ala indarra bildu eta aurrera egin. Saiatzeak eskatzen duen ahaleginaren eta lorpenek sortzen duten pozaren artean oreka topatzean dago gakoa. Baina gauza ba-

tzuk ahalegin handia eskatzen digute, gizartea egokitzen ez delako.

Eta asko hitz egiten da ezintasunen bat dugun jendearen lanerako eskubideaz, osasun eskubideaz, hezkuntzarako eskubideaz... baina, badago beste gai bat gutxiago aipatzen dena: aisialdirako eskubidea. Irudipena dut gure aisialdia gure inguruko pertsonen eta gurekin lan egiten duten elkarten esku uzten dela. Nik zortea izan dut, Iruñeko eta Urdiaingo lagunekin hainbat plan egin ahal izan ditudalako urtetan zehar.

“

Saiatzeak eskatzen duen ahaleginaren eta lorpenek sortzen duten pozaren artean oreka topatzean dago gakoa”

Nire gaixotasunak ez du sendabiderik, baina laguntasuna bada nolabaiteko sendagaia. Denborak aurrera egin ahala, ordea, nerabegaroko talde izaera hori lausotu egiten da, bakoitzak bere bidea hartzen du eta bere bizia egiten du, eta zentzu horretan aisialdirako aukerak asko murrizten zaizkigu. Hutsune handia uzten du horrek. Badira niretzat izugarri garrantzitsuak diren pertsonak, eta haiei esker Sakana aldeko mendi bueltak egin edo Larraun-Ultzaman tandemean ibiltzeko aukera izaten dut, adibidez. Baina gaia elkarten eta hurbilenekoen eskutan utzi eta beste aldera begiratzeko joera handiegia dagoela uste dut. Guk badakigu gurekin plan batzuk egitea ezinezkoa dela, eta ez diogu hori inori eskatuko, baina aisialdiaz gozatzeko eskubidea ere badaukagu eta hori ez da soilik ezinduen elkarten ardura. ●



Euskal elitearen eraketa

Azaroan Hego Euskal Herriko Eliteak: boterearen azterketa ikerketa lana aurkeztu zen. Ikerketa, talde lana izan da eta EHUko Jon Diaz Egurrolak zuzendu du, Paulo Iztuetairen laguntzarekin. Halaber, ikerketa eta argitalpena Ipar Hegoa eta Manu Robles Arangiz fundazioek finantzatu dute. Horregatik, harro sentitzen gara bi euskal sindikatu nagusiak ados jarri ditugulako horrelako proiektu bat burutzeko.

Ikerketak atal ugari ditu eta nagusiki elitearen alde teorikoak eta geure erakunde publiko eta pribatuetan jokatzeko duen protagonismoa aztertzen dira. Izan ere, lehenbizi jakin behar da zer ulertzen den eliteaz eta gero elite horren formakuntza ikusten da. Laburbilduta, elitea jendarteko erakundeetako goi karguek osatzen dute, zeinek ospe handi eta lansari bikainak eskuratuko dituzten. Bestalde, elitea osatzen duten kideek, gehienek, unibertsitate ikasketak dituzte, Hego Euskal Herriko best unibertsitateetan burutuak: hiru pribatu eta bi publiko. Horrez gain, kide batzuek kanpoan eskuratu zuten unibertsitate titulua.

Unibertsitate publikoei dagokienez euskaldunok defizit esanguratsua genuen, zaila egiten baitzen ulertzea gurea bezalako herrialde garatu batek bakarria ere ez izatea. Bitartean, Deustun jesuitak bere unibertsitate pribatua zeukaten (1886) non euskal agintari asko ikasketak burutzen zituzten. Geroago,

Gehienak gizonezkoak dira eta euskara gutxi batzuek ezagutzen dute. Gehiengoaren formakuntza unibertsitate pribatu garestietan burutu da

Iruñean Opus Deik berea sortu zuen (1952). EHU, teorian, 1980an legezatu zen, EAERI atxikita, baina urte ugari zerramatzan Espainiako Estatuko zenbait unibertsitatearen pean tituluak eskaintzen eta euskal elitea elikatzen: Bilboko "Escuela de Comercio" (1818), gaur egun Ekonomia Fakultatera txertatuta; Ingeniaritza Eskola (1897); eta Ekonomia Fakultatea (1953), Sarririkoko Fakultatea 1964ean ireki bazen ere. Euskal elitea eratze aldera hiru fakultate hauek ere bere protagonismoa izan dute.

Euskal elitearen eratze prozesu horretan unibertsitate publikoaren pribatizatze prozesua azpimarratu behar dugu. 80ko hamarkadan unibertsitate ikasketak gauzatzeko aukerak izugarri zabaldu ziren. Edozein maila ekonomikotako seme-alabek unibertsitate ikasketak burutzeko aukera berdina izan-



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

go zituzten, baita "jendarte eskaileran" igotzeko parada paregabea ere. Baina, mende berri honen hasieran, Europako Batasunak markatuta, "bikaintasuna" helburu bilakatu zitzaigun. Ondorioz, ikerketa zentro pribatu-publiko aunitz sortu dira EHUren babesean eta baliabide publiko andana bideratu zaie: irakasketa-ikertzaileak eta finantza baliabideak. Horrela, EBren "bikaintasun" eskaera etorkizuneko euskal elitera heltzeko galbahe gehigarri bat izango da.

Osasungintzan ere antzeko fenomeno gertatzen ari zaigu. Izan ere, Osakidetza osasun zerbitzu publikoa eskaintzen duen erakunde publikoa da, baina atzean dauden zerbitzu andana, hala nola analisirako laborategiak, kontsultaklinika pribatuak, tratamendu bereziak eta abar, enpresa pribatuek gauzatzen dituzte. Eliteko sendagileek haien profesioa enpresa hauetan ere burutuko dute, Osakidetza ospitaletan egikaritzen duten lanaz gain.

Euskal enpresa handienetako aginte postuetan dauden kargudunek, enpresen jabetza publikoa zein pribatua izan, euskal elitearen parte garrantzitsua osatzen dute. Hauen artean, gehienak gizonezkoak dira eta euskara gutxi batzuek ezagutzen dute. Bestalde, talde boteretsu honetako gehiengoaren formakuntza unibertsitate pribatu garestietan burutu da. Beraz, familia aberatsek aukera gehiago izango dute euskal elitea osatzen jarraitzeko. ●

Hitza zaintzaile



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

2022. urte atari honetan, opari prezagarría eragin digute Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak; Euskal Editoreen Elkarteak; Euskal Idazleen Elkarteak eta Galtzagarri Elkarteak, Hitzak Zaindari ekimena abiaraziz. “Euskal literaturaren hitzen zaintza aldarrikatzeko”, bereziki, *Hitzak Zaindari* liburuttoa digute eskaini, hogei testu bihotz-goxagarri jositako.

Egiaz, zauriturik bukatu dugu 2021. urtea gehien-gehienok, sinetsi gabe gure oinazeak leunduko direla 2022. ean. COVID-19ak eragin tentsio izugarriak Estatuaren artean, eremu publikoan, politikan, lanean, lagunartean, familietan eta bakoitzaren baitan areagotu dituzte lehenago sortu larrialdiak, hauek aldaketa klimatikoaren kontzientziak edo muga ekonomiko-politikoak bultzatuak. Testuinguru horretan, diskriminazio eta bortizkeria erak biderkatu eta indartu dira, denen bistara, eta belaunaldi guzietako jendea gero eta bakartiagoa, gero eta galduagoa, gero eta etsituagoa sumatzen dut ene inguruan. Kaos sakon hori elikatzen du berehalako albisteei buruz dugun adikzioak, ez gaituelako hatsa eta gibelapea hartzera uzten, bahitzen digulako

hausnartzeko gaitasuna, eta ondorioz baikortasunez aitzinatzen ahalbidea.

Zenbaitzuek beren izate zauritua artatzen dute erremedio antidepressiboak edo gobernatzaileen gezur absurdoak irentsiz, birtualtasunaren eta teknologiaren ahalmen magikoetan ezarritik esperantza; eta ez nitzake presuna horiek gaitzetsiko, gogorregia izan daitekeelako konfiantza arrunt galtzea bote-rean direnek zabaldu ameskerietan, eta sistema osoa usteltzear ikustea. Beste batzuek beren burua babesteko dute engaiamendu sozial edo militantzia politikoaren bidez. Besteek berriz, artea, musika edo hitzaren bidez zainduko dute beren barne-oreka eta beren hurkoa. Hori dut nik biderik gustukoena aurrera jotzeko, nahiz eta menturaz bide itsua izan daitekeen.

Liburuekin, alabaina, zure burua behartzen duzu gelditzera eta une batez birzentratzera, zurrumbilo nahasieta-tik at. Luxuzko momentuak izaten dira horiek: estoka sozialaren presiopetik mirakuluz libratzen zara, eta orduan, zorionezko astia har dezakezu biziraupen zentzudun bati pentsatzeko. Horrelako denboraldi estimatua iragan nuen *Hitzak Zaindari* irakurtzean, eta orainda-

nik gozaten ditut beste batzuk, ondoko egunetan leituko edo berriz leituko ditudan obrekin. Izendatuko dizkizut hemen, irakurle. Ipuin batzuk, Xan Idiarren *Teresaren Mendekua*, berritasuna dastatzeko. Oier Guillanen *VHS*, literaturaren mugetaraino joateko. Fernand Pouillon arkitekto eta preso ohiaren *Les Pierres Sauvages* eleberria, segurtatzeko sorkuntza fede egintza dela, oroz gainerik. Poesia ere bai: Elizabeth Bishop-en *North and South*, eta Leire Bilbaoren *Etxeko urak*, kontsolamendu eta itxaropen hartzeko. Aski bizkortu-eta, filosofia: Ander Berrojalbiz, Séverine Denieul eta Javier Rodríguez Hídalgoaren *Les avant-derniers jours de l'humanité*, {L'Autre Côté} argitaletxe independenteak plazaraturiko liburuño argia, bizi dugun desastre demokratikoaz. Eta bukatzeko, Mohamed Mbougar Sarr senegaldarraren azken eleberria, *La plus secrète histoire des hommes*, Goncourt sari ezaguna irabazi berri duena, afrikar frankofono gazte horrek gizaki bihotza nola ikusten duen sentitzeko eta Afrikaren kolonizazioa nola birpentsatu duen jakiteko. Urte hastapen honetan, beste agiantzarik ez dut: Hitza zaintzaile izan bekigu, literatura zale guziosi! ●

Gauza txikiak



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Urtea neure buruarekin konpromiso batekin hasten dut, ARGIA idaztea. Amaitu gabeko euskalduntze-prozesuari ekiten nionean *Zeruko Argia* aldizkari sakratu moduko bat zen, non Euskal Herriko pentsamendu libre eta konprometitu gehiena idazten zen... eta orain ni eremu honetan bertan pentsatzen eta idazten saiatuko naiz...

Eta zeri idatzi hainbeste gauzaren hasiera berri honetan? Birusaren ingurukoei? Edo hobe al da beste leku batera begiratzea... Laino pandemikoa desageritzen hasi den honetan, nola ikusten da herri txiki honen errealitatea? Errealitate hau ni baino askoz azkarrago eraldatzen da eta batzuetan, ez galtzeko, distantzia hartuz begiratu behar izaten dut.

Nire gizarteaz, nire lanbideaz, euskal politikaz, oraingo herritarrok defendatzen ditugun balioez oso gutxi dakidala nabarmendu dut. Ez dakit ia ezer planetan gertatzen ari diren aldaketei buruz, ezta aldaketa horiek zuzentzen dituztenei buruz ere.

Informazio anitza bilatu arren, ez dut erantzun lasaigarriarik aurkitzen, ezta kezkgarriarik ere.

Soilik sumatzen dut gizateriaren aurrean aro berri bat irekitzen ari dela, eta nekez antzematen dudala non bukatuko den aldaketaren parabola handi honen ibilbidea.

Beraz, ziurgabetasun global honetan murgilduta, nire erabakiak hartzen aha-legendu naiz eta, erabakiz erabaki, askotan erreparatu behar dut gizaki guztiak berdinak direla, eta eskubide berberen subjektu. Era berean, neure buruari gogorazi behar diot, nire pentsamoldean agertu nahi duen polizia kate motzean lotu behar dudala... Eta nahaste orokor horren erdian, hobe nire inguruko gauza txikiak eraldatzen eta zaintzen saiatzea.

Nire belaunaldia gehiegitan galdu da mundua eraldatzeko definiziotan eta, aldi berean, gutxitan eraman ditugu horiek praktikara. Agian hurrengoek errealitatea beste begirada batzuetatik ikusi eta beldurra kenduko diote hainbestetan menderatu gaituen ideien kaosari.

Egun hauetan nire etxean ume txikiak daude. Haien artean hizkuntza komun bakarra euskara dute, baina beste hiru hizkuntza menperatzen dituzte, hau da, mundua ulertzeko beste hiru modu. Honen nolabait desaktibatu egiten dit beren etorkizunari buruzko kezka, haiei egokituko baitzaie gizatasun konplexu honetan bizitzea eta tresna ugari izango dituzte mundua eraldatzeko.

Eta nik amona bezala, kemen bat transmititu nahi nieke. Inguruko izakiak zaintzeko kemena, gauza txikiak zaintzekoa... Azken finean nik zaintza horretan nire bizi-tzaren zentzua behintzat aurkitu dudalako. ●

Sexu eta genero askatasunaz



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Talde baten funtzionamendua erregulatzeko arau multzo gisa definitu daiteke sistema hitza. Badaude gure bizitzetako hainbat aspektu kontrolatzeko hainbat sistema, eta guztiek dute faktore bat komunean: egonkortasuna. Sexu eta genero sistemak identitate egonkorak eta koherenteak sortzea ditu helburu, mendebaldeko kulturen eta kolonizazioaren eraginez matrize heterosexualean materializatu dena. Horren arabera sortuko dira bikote heterosexuala eratuko duten emakume femeninoa eta gizon maskulinoa, produkzio katearen etorkizuneko esku lana ziurtatu eta anormaltasunaren eta

patologiaren definizioa zehaztuko dituztenak.

Identitateen espektroan LGTB errealitate batzuk onartu badira ere, egonkortasun eta koherentzia minimoa eskatzen zaie haien existentziak gutxieneko errekonozimendua izan dezan. Hortaz, LGTB siglek ez dute zertan sexu eta genero askatasunaren sinonimo izan; murritzaileak eta baztertzailak izan daitezke sistema kapitalista eta heterosexuala den heinean. Ondorioz, xedea ez da bazterretan dauden gorputzak inon integratzea, sistemak iraun bitartean bazterketa halabeharrez emango da sistema bera delako bazterketaren eragile. ●

Gure belaunaldiaren kontra



RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA
EUSKARA IRAKASLEA

Gasteizen gure belaunaldia zerbaitek berdintzen bazuen, desfasea zen. Berdin zen ze tribukoa zinen, (ia) denak ginen alkoholikoak edota bestelako drogazaleak. Cercas Bajasen pijoak, Zapan alternatiboak, Kutxin tradizionalak eta borrokak, Santo Domingo eta Zapa inguruan heavyak, marihuana zaleak Parnason, makinetoak Barruko Kalean, Pop espainiar zaleak Pinton eta Kale Berrian, nagusiak Aldapan eta San Prudentzian...

Gurea da orain aginte makila duen belaunaldia –beharbada amnesia jeta, hainbeste parranden ondotik–. Izan ere, gu historian ezagutu den “gaztarorik” luzeena bizi izan dugun belaunaldia gara, ez aurrekoek ez ondorengoek berdintzerik izango ez dutena. Hamahiru bat urterekin hasi eta hogeitaz luze luze gurea da:

Gu, tabernak gaupasa egin eta eguna argitu arte zabalik ezagutu genituenak; (mutilek) kalean edo atari batean txiza egin eta txahala botatzen genuenak; etxera bueltan, egunkari-ontzietatik aleak hartu eta botatzen genituenak;

Gure gurasoen kopia guaiak gara, gure umeen super babesle eta gazteen etsai

hiri-altzariak eta botilak puskatzen ibiltzen ginenak. Edo hori dena normaltasunez ikusten genuenak.

Lehenik, gaupasen zurrunbilatik aterara behar izan genuen. Guraso egiten zara, adibidez. Orduan, asko (batez ere mutilak) korrika-txirrinduan-mendian hasten dira, lehen drogen bidez bezala, orain eguneroko errutina berritik ihes egiteko.

Eta inoiz edo behin egiten dugun kuadrilla jatorduan, mahaiaren bueltan eseri, musukoa kendu eta zizka-mizketatik azken kubataraino, hasi gara egungo gazteak berekoiak direla eta

parranda bukatu arte COVIDaren kontra ez dagoela zereginik esaka. Berdin da gu taberna baten epelean gauden eta gazteak plazan edo mendian botiloi egiten. Gero, hizpidera ekarri ditugu bullying-hater-“bandak”-alkohola-rave-drogak-botiloi-smartphone... gaurko gazteen asmakizunak!

“Gaur egungo gazteak” hasten diren esaldiak, “jendea” hasten direnak bezala, magikoki ateratzen gaituzte “gu” ekuaziotik. Jendea gu ez beste guztiak balira bezala, eta gaur egungo gazteak, berriz, gure etxeetan hazi ordez, Martetik ekarri balituzte bezala: beharbada, familian (o, familia!) barne-komunikazioa beti izan delako hipokrisia eta inkomunikazioa.

La Pollaren kontzertuan, soziedadean, kubateoan liberal eskuindarretatik gero eta gertuago dauden ezker-tiar ohiak gara. Gure gurasoen kopia guaiak, gure umeen super babesle eta gazteen etsai.

Kristoren gaupasak egin genituen, eta biharamunean egunkari zahar hau gara. ●

ARGIA

Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Komunismoa helburu

Oso gaztea da, sehaskatik atera berria, baina sustrai ideologikoak iraganean ondo errotuta ditu Euskal Herriko Mugimendu Sozialistak, eta etorkizunari irmo eta seguru begiratzen dio. Seguruegi akaso?

Denborak esango du, baina ez du txantxetako helmuga: mundu mailako ezkerreko tradizio luze eta korapilatsuaren lorratzari segika, komunismoa eraiki nahi du Euskal Herrian eta munduan; haien ustez, munduan ez bada, Euskal Herrian ere ez baita izango.

 XABIER LETONA BITERI  GEDAR

Gazte Koordinadora Sozialista (GKS) da Mugimendu Sozialistako erakunderik indartsuena, 2019an sortu zen eta haren zein aurretikoen testuek, 80ko hamarkadaren hasieran etxean irakurtzen nituen anaia nagusien Marta Harnecker eta gisako literatura gorriaren tankera gordina zuten. Galdera berez erori zen: baina posible ote igaro mendean porrot egindako tradizioaren haritik tiraka, orduan bezain berdintsu tiraka gainera, XXI. mendean norabait iristea? Hastapeneko burutazioak gisa horretakoak ziren norbere baitan. Hotzean pentsatuta, ostera, pentsamendu hori gauzatzea gaur atzo bezain gaitz dela ondoriozta liteke, eta ideiak, hain zuzen, mugimenduko kideen indarguneetakoa dira gaur egun. Egungo kapitalismoaren bilakaerak, Euskal Herriko borroka armatuaren ondorengo egoera

politikoak, eta azken urteetan borroka ideologikoari eman dioten garrantziak izango dute zerikusirik mugimenduaren gorpuztean.

Lehenengo urratsean, batek pentsa dezake Mugimendu Sozialista Ezker Abertzalearen 2011ko paradigma aldaketaren ondoren sortutako sigla zaparradaren bueltako beste bat gehiago dela. Eta hori ere bada, baina hurbildu ondoren, arretaz eta begirunez begiratzeko moduko hainbat zantzu ere ageri ditu: darabilten diskurtsoa zaharkitua iruditu arren, etorkizunera begiratzen duen gorpuztze ideologiko landua antzematen da; antolaketa sendoa; lan handia eta euren proiektuaren alde borrokatzeko jarrera irmoa; eta talde sozio-politiko moduan kopuru aldetik oraindik indartsua ez bada ere, bere inguruan sistemarekiko desadostasun erradikalaren multzo bat biltzeko gaitasuna erakutsi du.

Usain zaharreko zerbait berria da, azken hamarkadetako euskal politikan ikusi ez duguna behinik behin, XX. mendeko komunismoaren errautsetatik XXI. ean hegaldatu nahi den ikuspegi bisionario, askatzaile edo utopikoa garatzen duena, begiratutako betaurrekoen arabera. Eta gehiago hurbildu gara, hobeto ezagutu eta azaldu guran. Erreportajea egiteko Gedar webgunea, Gedar Telebista eta *Arteka* aldizkarian murgildu gara, mugimenduaren *Pravda* modernoetan. Mugimendu Sozialistako Beñat Aldalur azpeitiarrarekin ere hitz egin dugu. Bistan da komunikazioari garrantzi handia ematen diotela, haien egia haien erara gizarteratu nahi dutela, gizarteko gainerako korrante politikoek egiten duten bezala; egia esan, kazetari honen esperientziatik begiratuta bederen, kontraesankorra ere badirudi, haiekin hitz egitea lortzea ondo kostatuko zeregina izan delako.

ETA-REN AMAIERA

2011n ETAk borroka armatuaren amaiera iragarri zuenean hasi ziren egungo sugar hauen lehen txinpartak aireratzten. Ezagunak dira ezker abertzalean prozesu hark sortu zituen tentsioak. ENAMeko lemazain berriek norabidea aldatu zuten, baina desadostasun guztiak ez ziren atzean geratu. Ondorengo urteetan hasi eta gaurdaino talde eta korronte txiki ugari garatu dira: Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimendua, Askatasunaren Bidean -desagertu zen-, Jarki, Jardun, Herri-tar Batasuna, Hauspoa, Eusko Ekintza (ANV-EAE)... eta Mugimendu Sozialistako sigla eta izen saltsa ere hor dago.

Borroka Garaia da! bloga izan zen ezker abertzaleko disidentziaren bozgorailu esanguratsuena. Egungo Mugimendu Sozialistako hainbat kideren testu eta hausnarketa ugari batu zituen blogak. Blog hartako eztabaidetan eta ikasle mugimenduan hazi ziren arbolaren lehen sustraiak. Ikasle Abertzaleak (IA) erakundea nor kontrolatuko, talka egin zuten ezker abertzaleko gazteen bi ildo nagusiek, eta 2018an Ernaik iragarri

zuen IArekiko loturak apurtuko zituela eta hezkuntzan bere kabuz ekingo ziola lanari, ondoren Ikas sortuz.

ENAMen eremu soziologikoetatik datoz, eta Euskal Estatu Sozialista dute helburu, baina argi utzi nahi dute ezker abertzalearekin apurtu dutela

Beñat Aldalurren esanetan, haiek ere ezker abertzalearen esparru soziologiko zabal horretatik datoz nahitaez, eta Mugimendu Sozialistaren hedapena oraindik mugatua dela aitortzen du: "Lan ideologikoa medio, orain arte gai izan

gara soziologia unibertsitarioko esparruetara iristeko, kezka politiko eta intelektuala duen hainbat jende bildu dugu, baina oraindik ez gara proletariora iritsi, hau zentzu orokor batean hartuta, eta zeregin hori pixkanaka egiten ari gara. Hori da gure erronka".

ENAM-EKIN APURTU

Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduen (ENAM) eremu soziologikotik datoz, eta Euskal Estatu Sozialista dute helburu, baina argi utzi nahi dute ezker abertzalearekin apurtu dutela, eta ez dutela zerikusirik haren tradizio historikoaren segida izan nahi duten beste talde txikiagoekin ere. Iragan azaroko *Artekan* ozen azaldu zuten apurketaren nondik norakoa, "ENAMen porrot historikoaren" analisi zehatza eginez. Gedar-ek sinatzen duen *Berdinketaren amaiera: Estatuaren behin betiko ofentsiba* erreportajea, 2007tik 2011ra Ezker Abertzalearen baitan izandako mugimenduak miazten dira. Koiuntura politikoa aztertuz, halaber, Aitor Martinezek *Ezker Abertzalearen porrot historikoaren ondorioak* jorratzen ditu:



“Hamarkada hauetan behera egin duena ez da grina eta borondate iraultzailea izan. Desagertu dena programa iraultzailerik gabeko itxurakeria iraultzailea izan da, hau da, sozialdemokrazia iraultzaile gisa azaltzea ahalbidetzen zuen testuingurua. Horri deitu izan zaio krisi kapitalistaren ondoko politika burgesaren krisia, zeina modu gordinean agertzen den sozialdemokraziaren haragitan. (...) Erronka berdina dugu esku artean; azken hamarkadetan proletalgoak izan duen erronka berdina. Abiapuntua hasierako berdina da: porrot egin dugu, komunismoa sistematikoki baztertuta izan da Ezker Abertzalearen baitan. Orain hasiera berri baten aurrean aurkitzen gara, baina oraingoan hori ez da soilik posizio etiko bat”.

Aldizkari berean mugimenduko hiru gaztek “Ezker abertzale ofizialarekiko” apurketa horretan sakontzen dute, besteak beste, desenkantatu batetik eraikuntza politikorako urratsa eman dela azpimarratuz. Aingeru Otxotorena, Dorleta Agiriano eta Isaak Ziaurriz Ernain eta IAn hasi ziren, eta azken hamarkadan Ezker Abertzaleak eramandako ildoaz oso kritiko hitz egiten dute. “Gero eta nabarmenagoa zen ‘ofizialismoak’ Estatuan integratzeko eta instituzio nahiz legalitate burgesetatik eragiten saiatzeko egina zuen apustua (...) bazirudien ezin genuela jada iraultzan sinetsi”, dio Agirianok. Desadostasunak hainbat esparrutan ikus zitezkeela azpimarratzen du Otxotorenak: “Mobilizazio ereduak, Sorturekiko erabateko obediencia, borroka parlamentarioari gehiegizko garrantzia ematea, interklasismoa, amnistia-afera...”.

Ideien garapena luzeagoa bada ere, ENAMen porrota azalduko luketen hainbat puntuz mintzo zaigu Beñat Aldalur. “Denborari dagokionez, Sobietar Bata-sunaren amaierarekin batera egon zen nazio askapeneko mugimenduen gain-behera hor dago. Espazioa oinarri hartuta, horietako prozesu askok izan zuten arrakasta, baina azpigaratutako herrialdeetan, periferian. ENAMen interklasismoarekin ere kritiko izan gara, aliantza horretan burgesia txikia nagusitu zelako eta ez langileria. Baita etapismoarekin ere, hau da, lehenik independentzia eta gero sozialismoa. Gure ustez, nazio auzia eta soziala ez dira bi prozesu ezberdin, programa sozialistaren parte izan behar dute, eta gainera, prozesu hori zentzu internazionalista batean ulertuta, prozesu zabalago baten parte izan behar



du”. Hala ere, European zerbait bai, baina aitortzen du oraindik ez dutela harreman handirik munduko beste eragile komunistekin.

Kontseilu Sozialistetan adin guztietako militanteek parte hartzten dute, orain arte, batez ere gazteak aritu baitira Mugimendu Sozialistako erakundeen jardueran

Eta errepasso historiko horretan, zehazten du beste hipotesi batzuk ere ari direla lantzen: “Adibidez, ETArek estrategiak iraun zuela naziotasunak indar handia zuelako. Borroka horrek iraun badu, izan da borroka armatuak berak sortzen zuen atxikimenduagatik, ez estrategikoki asmatu zelako; ENAMek bere burua erreproduzitzeko gaitasuna zuen. Hala ere, ENAM ez zen gai izan prozesu iraultzaile zabala lortzeko. Begiratu behar da zergatik ez zen gai izan oraindik ere jende gehiagorenga-

na iristeko, bestelako botere eredu bat sortzeko”.

Lehentxeago aipatutako Gedar-eko erreportaje zabala hala amaitzen da: “Klaserik gabeko Euskal Herriaren alde modu desinteresatuan bizitza eskaini duten militanteekiko eta proiektu emantzipatzailearekiko begirunez, kritika eta diziiplina dira XXI. mendeko militante komunistaren betebeharrak etikoak. Aurrekoen akatsen eta ekarpenen identifikazioak balio dezala batzen gaituen ortzi-mugara hurbiltzeko”.

PROIEKTU KOMUNISTAREN PORROTAN

Zergatik egin zuen porrot XX. mendeko proiektu komunistak? Aldalurrek hainbat faktore mahaigaineratzen ditu, kritika orokor gisa: “Ezin da pentsatu bakarrik AEBen hegemoniatatik egin zuela porrot, barne arazoietara ere begiratu behar da. Adibidez, une historiko batzuetan –XIX. mende bukaeran edo XX.eko hasieran– langile klasea sozialismoarekin parekatzea lortu bazuten ere –gaur egun ez da identifikatzen proletariotza eta sozialismoa–, prozesuak batez ere politikoak izan behar ziren sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa tinkatzea lortu ez zuten heinean. Hau da, estatu aparatuak hartu ziren, baina ez zen finitu gizarte ereduaren eraldaketa osoa. Ez zegoen teoria garbi bat sozialismoa prozesu gisa ulertzeko. Estatua hartzen da eta gero malabarak egiten dira hau mantentzeko. Orduan estatuak jan egiten zaitu. Ondorioz, denborarekin bu-

rokratizazio prozesuak ematen dira, elite eta elite ez direnen arteko banaketa, eta berriz kapitalismora itzultzea. Orain argi ikusten dugu prozesu politikoak eta ekonomikoak batera joan behar dutela, adibidez soldataren logika gainditzeko. Prozesu sozialista batek soldataren diziplina gainditu eta hortik harago begiratu behar du.

Baina bere garaian Antonio Gramscik aipatu zuen bezala, estatuaz gain, hor da kultur hegemoniaren gaia ere, eta Mugimendu Sozialistarentzat hori esparru klabea da. Hau da, Aldalurrek azaltzen duen gisan, “ideologia kapitalista guztiz dominantea den proletariotzaren barruan, pentsatu behar da –eta Gramscik erremintak ematen ditu horretarako– zein tekla eta zein esparru ukitu behar diren, eta borroka prozesuak kulturalki nola baliatu behar diren. Bizi ikuspegiei buruzko guda kulturala ematea, beraz, lehentasunetakoa da guretzat”. Eta hala ere –dio mugimendu sozialista honetako ideologoetakoa den eta *Kolitzza* moduan sinatzen duenak *Artekan-*, prozesu kultural horietan ondo asmatuta ere, beti izango da ezinbestekoa “formazio sozial burgesari eragiten dion faktore erabakigarria: kapitalismoaren metatze krisia, gaur egun mendebaldeko langile masen bizitza kalitatean galera geldiezina dakarrena”.

MUGIMENDU SOZIALISTAREN ANTOLAKETA-ESPARRUA

Une historikoren batean proletariotzak lehiatu beharko dio estatua burgesari, hori Alderdi Komunistaren bidez egingo du, baina bitartean Mugimendu Sozialistako erakundeei dagokie horretarako baldintzak sortzea. Ez da kontua alderdi komunista bat alderdien erregistroan sortzea eta kito, horretarako baldintzak daudenean sortuko da Alderdi Komunista. Beraz, gizartearen eragitea dagokio Mugimendu Sozialistari eta azken bi urte hauetan hainbat tresna sortu ditu horretarako.

Gazte mailako GKS da ezagunena eta aktiboena, baina beste batzuk ere badira: Itaia emakumeen antolakunde sozialista, kultura eta artearen munduan Ekida, gaztetxe eta okupazioaren eremuan Erraki, hezkuntzan Ikasle Abertzaleak, eta hedabideen alorrean Gedar, Gedar Telebista eta *Arteka* hila-betekaria. *Arteka* euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen da, eta Gedar.eus euskaraz egiten da. Hori ere bitxia egiten da, euskal nazio edo identitateaz ezer



Mugimendu Sozialistak kalera atera du instituzio nagusiek COVID-19az egin duten kudeaketaren salaketa.

gutxi irakur daitekeen hedabideetan, euskara nagusi da. Aldalur naturaltasunez mintzo da gaiak: “Hizkuntza tresna bat da guretzat, orain arte euskara erabiltzen dugu nagusiki, baina lurraldearen arabera – zonalde erdaldunak

ORAIN, KONTSEILU SOZIALISTAK

Eguno abagunean tresna garrantzitsuena eta zentrala dena ere sortzen ari dira, orain arte aipatutako guztiak koordinatu eta akuilatzeke: Kontseilu Sozialistak. Proletariotzaren iraultza gidatzeko erreminta zehatzak lirateke, lurralde eta sektoreetan “hazkunde mugagabea izango duten Alderdi-zelulak”, *Kolitzza*-ren arabera.

Kontseilu hauek sobieten gisakoak dira eta haien lana izango da komunismoa eraikitzea, hau da, *Kolitzza*-k 2021eko urtarrileko artikulua batean dioenez, “klaserik gabeko gizarte unibertsal baten programa historikoa, non gizateria osoaren ondare baitiren askatasun politikoa, ongizatea eta aberastasuna (...) Laburbilduz, –diosku *Kolitzza*-k, eta komeni da arretaz irakurtzea– kontseiluak demokrazia proletarioaren administrazio-zelulak dira eta militante sare komunistaren hazkunde proporzionalerako fronte zein borroka zehatzak artikulatzeko, proletariotza iraultzaileak prozesu sozialak kontrolatzeko eremua pixkanaka zabaltzeko eta Alderdi Komunista mundu mailan berretarua izango den ofentsiba fase batean proletariotzaren sektore ezberdinetan eta konpromiso maila ezberdinekin komunismoa gero eta gehiago nagusitzeko zeregin berehalakoa dute”.

Aldalurrek dioskunez, Euskal Herriko eskualdeen erdietan dagoeneko badira Kontseilu Sozialistak, baina gai gehiago

Mugimenduaren
ikusmoldeak arazoak
sortu ditu hainbat
gunetan, batez
ere okupazioaren
munduan, eta hainbat
ahotsek leporatu
die gaztetxeetako
pluraltasuna hausten
ari direla

badira– erabiliko dugu gaztelera edo frantsesa, euskararekin batera. Komunismoan hizkuntzak, euskara adibidez, humanitatearen ondare izango dira, ez gurea bakarrik; eta testuinguru horretan, munduko hizkuntza guztiak garatu ahal izango dira”.

ere landu nahiko lukete, esaterako "gune sozialisten edota etxebizitzaren auzia, askatasun politikoaren aldeko eta errepre-sioaren aurkako borroka, auzi laborala eta oinarrizko bizi baldintzen esparrua". Bide batez, kontseiluetan adin guztietako militanteek parte hartzen dute, orain arte, batez ere gazteak aritu baitira Mugimendu Sozialistako erakundeen jardueran. Euskal Herri osoko mugimenduak izan nahi du eta Ipar Euskal Herrian iragan urrian sortu zuten Kontseilu Sozialista. Gipuzkoako Urola Erdian eta Goierriin, eta Nafarroan Iruñerrian eratu dituzte orain arteko kontseilu indartsu-enetakoak.

ALIATUAK ETA GATAZKAK

Urruti da gizarte berria, komunismoa, eta hartara iristeko iraultza egin behar du proletariotzak, hau da, oraingo Mugimendu Sozialistak. Behar du aliantzarik horretarako? Ez da samurra gaia. Haientzat prozesu iraultzailean bi alderdi nagusi daude jokoan, proletariotzarena eta burgesiarena, eta beraz, parte-hartzen duten esparruetan, horietan hobekuntzak lortzeko borrokatuko dira, baina beti ere iraultza sozialisten norabidea elikatzeko balio badute. Prozesu hori guztia, proletariotzaren independentziatik egin behar dela azpimarratzen dute, eta ezkerreko beste sentsibilitate batzuek gogorarazten dieten Mugimendu Sozialista bera ere aktore politiko bat gehiago dela.

Ikusmolde horrek arazoak sortu ditu hainbat gunetan, batez ere okupazioaren munduan, eta hainbat ahotsek leporatu die gaztetxeetako pluraltasuna hausten ari direla. Sare sozialetan eza-gunak dira gatazka honi erreferentzia egiten dioten gaztetxeetako zenbait militante eta Errakiren arteko ika-mikak zorrotzak. Horietako bat da Gasteizko

Hitzez langileriaren interesak defendatzen dituzten baina, izan, Burgesiaren Alderdiaren parte diren horiei guztiei bizkarra emateko unea da GKSren arabera

Arkillos etxe okupatua emandakoa: "Finean, 10 urtez, bizilagunez eta kolektiboz oso anitza izan den etxe bat, 4 egunetan pasatu da Errakirekin lotu den etxe bat izatera. Une zehatz bateko gehiengoak inposaturik bai, ez kontsen-

tuz. Autogestioa, asanblada eta auzolanaren balioak ezberdin ikusten ditugu guk", idatzi zuten sei bizilagunetako bik. Errakiko pisukideen erantzuna: "Kalera-tutako iritzi artikulua xedea argia da: mugimendu politiko bat, honek sortzen dituen tresnak eta bertako militanteak kostatzen ahala kostatzen kolpatzea. Azkenengo egunotan hamaika kasu ikusi ditugu intentzio hori berresten dutena".

Gaztetxe askotan ere izan dira gisa horretako arazo eta gatazkak, eta Gasteizko Errekaleor auzo okupatua ere bai. "Kontsentsurik ez dagoenean, kontsentsua eraikitzen saiatu behar da, dio Aldalurrek, baina erdiesten ez bada, gehiengoak nahi duena egin behar da, bestela gutxiengoak erabakitzen du". Arazo zehatzen gaineko herritarren protestetan, Mugimendu Sozialista bestelako protesta bateratuetatik bereizten da hainbatetan, esate baterako mugimendu feministaren alorrean eta hilketa matxisten kasuan, batzuetan Itaiak bere ekitaldiak antolatuta ditu.

MANIFESTAZIOAK 29AN

2008tik kapitalismoa krisi latzean dagoela uste dute, eta ondorioz, urte urte langileriaren bizi baldintzak biziki kaltetzen ari direla. Krisi ekonomikoa eta COVID-19ak areagotu duen krisi politikoa ere hor dagoela azpimarratzen dute, eta urte bukaeran bereziki salatu dute COVID pasaportearen ezartzea. Protesta egin eta indar metaketa bultzatzeko, GKS urtarriaren 29rako manifestazioak deitu ditu Bilbon eta Iruñean *Burgesiaren diktadura gelditu!* goiburupean. Krisi kapitalistaz eta alderdiez Gramsciek egiten zuen hausnarketaren bueltan –bi alderdi daudela, burgesiarena eta proletariotzarena– ezaugarritu dituzte mobilizazioak. Hala dio iragan abenduaren 13ko Gedar-eko editorialak: "Hitzez langileriaren interesak defendatzen dituzten baina, izan, Burgesiaren Alderdiaren parte diren horiei guztiei bizkarra emateko unea da GKSren arabera".

Orain arte egin duten agerraldi jendetsuena izan da iragan urriaren 8tik 12ra GKS eta IAK bultzatuta egin zen Gazte Topagune Sozialista, 1.500 pertsonatik gora bilduz. Orain arte mugimendu honek dakarren berrikuntza nagusia ez da kuantitatiboa, baina datorren 29a garrantzitsua izango da haientzat, eta ezkerreko beste begi batzuek ere arretaz jarraituko dute zenbat biltzen diren eta hurrengo urratsak zein diren. ●



Formazioa eta aisialdia lotu dituzte hainbat ekitalditan.

“ ”

PSOEren gobernu egonkortzea nork bere buruari harrika egitea da

Mireia Vehí i Cantenys

2019an Kataluniak bizi zuen salbuespen egoerak bultzatuta, CUP lehenbizikoz aurkeztu zen Espainiako Estatuko hauteskundeetara bi eserleku lortuta. Mireia Vehí (Vilafant, Herrialde Katalanak, 1985) diputatu eta zerrendaburuak ARGIA jaso du Madrilgo Kongresuan, alderdi antikapitalistaren ibilbideaz eta erronkez solastatzeko.

 SAIOA BALEZTENA  DAVID F. SABADELL

Dena CUP duela bi urte sartu zen Espainiako Kongresuan ezustean. Alderdi antikapitalista eta independentista izanik, zerk bultzatu zintuzten Madrilera?

Arrakastarik gabeko lehen inbestiduraren ondoren eta preso independentisten sententziaren kontrako protesten erdian erabaki genuen lehen aldiz Espainiako hauteskundeetara aurkeztea. Batetik, errepresioaren ondorioz argi eta garbi ikusi genuen ezker independentistak politika espazio guztiak okupatzea garrantzitsua zela. Bertzalde, ERC eta Junts per Catalunyaeren paperak ez zuen ordezkatzeko Kataluniako herriak behar zuena. Testuinguru horretan, presaz eta ezustean erabaki genuen Espainiako hautagaitza aurkeztea.

Erabakiarekin kontent zaude?

Bai, CUPEk bultzatu duelako orain arte Kongresuan ez zegoen ahots independentista, antikapitalista, feminista eta ekologista ezkertiarra. Sarri bakarrik gelditu gara, baina, gure ekarpena garrantzitsua izan dela uste dut. Zoritxarrez, Diputatuen Kongresuak gero eta eragin mediatiko handiagoa du, gero eta kompetentzia gehiago dituelako. Madril xurgatzailea da. Beraz, gure parlamentu subiranoa katalana, valentziarra eta Balear Uharteetako den arren, Madrilen egoteak ikusgarritasuna eman digu, baita orain arte Espainian isilduta zegoen ahotza lau haizetara zabaltzeko aukera ere.

Parlamentutik Kongresurako jauzia egin zenuen. Nola joan da?

Egunerokotasunari dagokionez, gogorra izan da. Kongresuak berezkoa duen gogortasunari gehitu behar zaio eskuin muturraren presentzia. Eta, hori guti balitz, legealdia hasi eta gutira ezustean etorri zen mundu mailako pandemia; Espainia osoa itxita zegoen bitartean Madrilera etortzen ginen. Baina, era berean, ase nau orain arte tokirik ez zuen ahots baten ordezkari izateak. Beraz, egunerokotasuna gogorra izan den arren, esperientzia gogobetekoa da.

Zer deritzozu Pedro Sánchezen gobernuaz?

Etsipen handia dago legealdi hau izan zitekeenarekin. CUP erregimena ontzeko eta gobernaezinak izateko asmoz etorri zen Madrilera. PSOE eta Unidas Podes-



mosen gobernuak helburu hori lortzeko zenbait zirrikitu eskaini ahal zituen, baina, zoritxarrez, ez da horrela izan. Estatuaren oinarrizko kontu guztietan gobernu aurrerakoiaren politikak eskuinekoak izan dira.

Adibidez?

Ekonomiari dagokionez, europar funtsen kudeaketan, dirutza handien tasen faltan, ogasunean, zerga-sistema progresiboaren aldeko lan faltan, bertzeak bertze. Eta barne kontuetan, politika migratzaileen edo Mozal Legearen eztabaidaren ezdeusa, edo ezer guti lortuko duen lan erreformaren atzerapena azpimarratuko nituzke... Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEE) edo Bizitzeko Gutxieneko Errentarena neurri eskasak izan dira, ez dira iristen eta, beraz, ez dute helburua asetzen. Eta hori guti balitz, monarkia kritika egiteko eta eskubideen autodeterminazioaren atea zabaltzeko uko sistematikoa nagusi da. Pedro Sánchezek legealdia hasi zuen Kataluniako gatazka desjudizializatzeko apustua iragarritz eta hori ez da gertatu. Ez da gatazkaren irtenbide politikorik egon eta Sánchezen gobernuak aurrekoak baino gehiago erabili du Mozal Legea.

PSOE eta Unidas Podemosen gobernuak baino alternatiba hoberik bazegoen, zure ustez?
Gobernuak osatzeko?

Bai.

Ez, zenbakiak direnak dira eta aukera guti zegoen. Hori bai, alternatiba mesedegarriagoa eraiki zitekeen politika publiko zehatzen bitartez. Eta arazoa da PSOEek eta Podemosek mantra bat defendatzen dutela beti; gobernu honen egonkortasuna galtzen bada, eskuin muturrak eta eskuinak gobernatuko dutela. Hori tranpa da. PSOEek eskuin muturra seinalatzen duenean, zuzenean, ezkerrean kokatzen delako, baina, politika ezkertiarrik sustatu gabe. Beraz, gizarteari bidaltzen dion mezua da progresuaren gobernuak ez duela politika aurrerakoirik egiten, edo tanta-kontagailuarekin egiten dituela jendearen arazoak konpondu gabe.

CUP Madrilera joan zen, bertze gauzen artean, Espainiako Gobernuak blokeatu asmoz. Hemizikloan zuen botoaren norabideak sarri bat egiten du VOX edo PPrekin.

Deseroso sentitzen zarete?

Ez, CUPEk, VOXek ez bezala, bozkatzen duenean errotik ezkertiarra den posizionamendu politiko batekin egiten baitu. Adibidez, Pedro Sánchezen inbestiduraren kontra bozkatu genuen, VOXek bezala. Guk argi eta garbi erran genion presidenteari, aurrera begira politika eraldatzaileak sustatzen bazituen gure botoa zuzendu beharko bagenu, egingen

“ ”

Estatuaren oinarrizko kontu guztietan gobernu aurrerakoiaren politikak eskuinekoak izan dira

genuela. Baina hori ez da gertatu. Eta, aldiz, zenbaitetan PSOEek VOXekin batera bozkatu izan du, funts europarren onarpenean, adibidez, eta hortaz ez du inork deus erran. CUPEk egoera aztertu

eta bere planteamendu politikoen araberako bozkatzen du, bertzerik gabe.

Sánchezen inbestiduraren kontra bozkatu zenuten. Aldiz, Katalunian Pere Aragonesen alde egin zenuten, nahiz eta bere zerrendetan behin baino gehiagotan jarrera xenofoboa izan duen Joan Canadell egon. Zergatik?

Kataluniako Parlamentuan gu ERCrekin batera akordio batera iritsi ginelako, ondoren Junts per Catalunya ere batuz. Gure erronka zen gure herrialdea ezkererantz biratzea. Eta akordio horretan argi eta garbi adierazi genuen, sei hilabete barru hitzartutakoa betetzen ez bada, aurrekontuak ez ditugula babestuko. Madrilen bertze ikuspuntu bat dugu. Azken finean, Kataluniako Parlamentua eta Generalitatea babestu beharreko ganberak dira guretzat, Auzitegi Gorenak eta Espainiako Gobernuak sistematikoki xahutu dituelako. Madrilera, aldiz, ez gatzoz ezer eraikitza, Madrilen gaude, bertze gauzen artean, erregimenaren egiturak, monarkia, armada edo ustelkeria salatzen.

EH Bilduk, ERCrekin batera, Sánchezen gobernuak posible egin



zuen. Zer deritzozu Madrilen egiten ari den paperaz?

Analisi desberdina egiten dugu PSOE eta UPren gobernuarekin izan behar dugun harremanaz. EH Bilduk eta ERCek ulertzen dute Euskal Herria zein Kataluniarentzat politika publiko baikorrrak ahalbidetzeko modua dela gobernu honen egonkortasuna bermatzea; guk aldiz uste dugu, legealdiaren bi urte hauek pasata, PSOEn gobernu egonkortzea nork bere buruari harrrika egitea dela. PSOErekin itunak egiteak ez baitu ezertarako balio.

Pedro Sánchezek indultuak tramitatu zituen.

Eta gu poztu ginen jendea espetxetik atera ahal izan zelako, hori garrantzitsua izan zen, sufrikario handia zegoelako. Baina indultuena ez da irtenbide politikoa izan; bederatz lagunen egoera konpondu dute, baina lau mila errepre-saliatu daude oraindik. Irtenbide politikoa Amnistia Legea da.

Unidas Podemos talde parlamentario konfederalaren presidente Jaume Asensek ARGIA n adierazi zuen Amnistia Legea aurrera eramateko indar korrelaziorik ez dagoela gaur egun.

Noski, PSOE ez dagoelako prest. Baina, jakina da indar korrelazioak landu egiten direla. Eta, gure ustez, garrantzitsuena da erronka politikoak jartzea, amnistiaz solastatu ahal izatea eta herriarrei adieraztea irtenbide politiko egingarriak daudela. Eta horretaz aparte, gehiengo handiak osatzea garrantzitsua dela. Ez dut uste indar korrelazioa alegatzeak mesede handirik egiten digunik.

Momentuz, Pedro Sánchez izan da Kataluniarekin elkarrizketa mahaian eseri den lehen presidentea.

Bai, arazoa da elkarrizketa mahaiaz duen bakarra izena dela: ez dago baldintza berdintasunik, baldintzak Espainiako Gobernuak jartzen dituelako, ondorioetan mugak jartzen ari dira eta muga konstituzionalak ezin dira gurutatu. Beraz, PSOEek jarraitzen du legalitatearen eta legitimitatearen arteko pultsua egiten. Espainiako Konstituzioa zama ikaragarria izaten ari da elkarrizketa mahaian eta badakigu ERCk hori argi duela, baina, zikloa bukatzen utzi nahi dute.



Nola kudeatuko luke CUPek elkarrizketa mahaia?

Hasteko, elkarrizketa mahaia ezin du izan alderdi politikoen mahaia; bi herrialdeen arteko elkarrizketa gunea izan beharko luke eta arbitroak neutrala izan beharko luke. Espainiako Gobernu behartu behar dugu esertzera eta negoziatzera, eta horretarako ezinbertze-

“ ”

Oraingoa baldin bada Espainiak izan dezakeen gobernurik hoberena, independentzia biziraupen demokratiko kontua da

koa da nazioarteko komunitatearekin lan egitea. Egitasmo neketsua dela? Bai, noski. Baina, duela lau urte egin genuen eta, seguruenik, Espainia demokratiko-ki erreformatzea bezain utopikoa edo gutiago da. Zalantzarik gabe hau da Espainiak izan dezakeen gobernurik hoberena; ba, hau baldin bada Espainiak izan dezakeen gobernurik onena, indepen-

dentzia biziraupen demokratiko kontua da. Herrialde Katalanetan, Euskal Herrian eta edonon.

Legealdia amaitzeko bi urte falta dira. Aukerarik ikusten duzu Espainiako Estatua deszentralizatzeko?

Ez dago borondate politikorik. PSOEek berezkoa du erregimenaren euskarrietako bat izatea. Beraz, ez da konfiantza edo fede kontua. PSOEek ez du norabide horretan lan egin nahi eta barne gatazka handiak ditu bere lerroetan. Ez dut aukerarik ikusten, tamalez.

Zein da CUPen erronka hemendik aurrera?

Funtsezko eginkizuna dugu legealdia- ren bigarren erdi honetan, era berean Kataluniako Parlamentuaren legealdia ere badelako. Ezker independentista gara eta, beraz, ERCk egiten duen politikaren kontrapuntua izan behar dugu eta bi urte hauek balio behar digute bide-orri konpartitu bat osatzeko. Ez bakarrik independentismoari zuzenduta, baizik eta indar demokratiko guztiak abiapuntu hartuz. Hizkuntza murgiltzearen kontrako Gorenaren sententziak agerian utzi du gakoa dela gehiengo demokratikoak osatzea. Eskubide kolektiboekin ere badu zerikusia autodeterminazioak, herrialdearen bandera aldatzeaz haratago. ●

KANPAIGILEAK

Soinu perfektuaren maisuak

Manuel Quintanaren familia XVII. mendean hasi zen kanpaiak galdatzen. Lehen obrak Nafarroan jaio baziren ere, mundu osoko tenpluetako kanpandorreak bisitatu ditu Campanas Quintana enpresak. Euskal Herrian, Bilbon egin du azken zaharberitze lan garrantzitsuetako bat, Begoñako basilikan.

 JON GOIKOURIA LARRABEITI

Askorentzat, kanpaien soinuek orduaren berri baino ez dute ematen, baina kolpe horiek istorio harrigarriak ezkutatzen dituzte mailukada bakoitzaren atzean. Garai batean, kanpaien funtzioa gaur egungo WhatsApp aplikazioak duenaren antzekoa zen: komunikatzea. Orduaz gain, hiletan, ezkontzen eta jaiotzen berri ematen zuten, eta laino itxia zegoen egunetan, esaterako, artzainen gidari lanak egiten zituzten herri txikienetan, itsasargiek itsasontziekin egiten duten era berean, besteak beste.

Manuel Quintana Saguillo (Villota del Páramo, Palentzia, 1943) Espainiako Estatuan geratzen diren kanpaigile eta metalurtzaile artisau urrietako bat du. Quintanak, abizen bereko arbasoek bezalaxe, bizitza osoa eman du Campanas Quintana familia-enpresan lanean. Dokumentatutako lehen kanpaia 1637an sortu zuen Cle-

mente Quintana e Isla maisu urtzaileak, Nafarroan. Garai hartan, kanpaigileak langile ibiltariak ziren, eta lana zegoen lekuetara joan ohi ziren metala urtu eta kanpaiak egitera. Quintana familiaren kasuan, urte hasieran Kantabriatik irten eta Iberiar penintsula osoan barrena ibiltzen ziren, kanpaiak han eta hemen enkarguz sortzen.

“Lan esparrua eskualdetan banatuta zeukaten kanpaigileek garai hartan”, azaldu du Manuel Quintanak, gaur egun Saldañan (Palentzia) ezarritako industria-nabea. Lan eskariak eraman zuen familia Gaztelako herri xume horretara XX. mende hasieran, baina enkargu asko Euskal Herrian egin dituzte bere historian, “bereziki Nafarroan, XVII. mendean”. Palentzia, Madril, Bilbo, Marbella, Balear Uharteak, Nafarroa... Australian ere aurki daitezke orain Quintanaren kanpaiak.



ARTISAUA.

Manuel Quintana familiak Saldañan (Palentzia, Espainiako Estatuak) duen lantegian. Badira urteak kanpaiak eskuz egiteari utzi ziotela, baina prozesua euren kulturaren garrantzitsua da.

EUSKAL HERRIAN ERE BAI

XIX. eta XX. mendeak oparoak izan ziren oso kanpaigintzan. Euskal Herrian baziren kanpaiak galdatzen zituzten hainbat familia, baina denborak aurrera egin ahala desagertzen joan dira: Bilboko Delta Español, Agirre Sarasua edo Ignacio Ituarte, Durangoko Martin Eizaga, Iruñeko Vidal Erize, Gasteizko Murua... Campanas Quintanak ere lan ederrak egin izan ditu Bizkaiko hainbat tenplutan: Ibarrangeluko San Andres Apostoluaren elizatik hasi (1868) eta Begoñako Andra Mari basilikaraino (1994). Palentziako enpresaren produktu nagusia kanpaiak direnez, tenplu erlijiosoetan egin ohi dute lan (elizak, katedralak, komentuek...) baina baita udaletxe, erakuntza publiko eta erlojugintza mekanismoak eskatzen dituztenetan ere.

Manuel Quintanak erretiroa hartu aurretik enpresako administrazio lan



guztiak egin izan ditu: “Jende gutxi ginen enpresan eta departamentu guztietako ardura izan nuen urte horietan”. Saldañako lantegia bisitatu dugu kanpaigile ohiarekin, eta nabeko sarrerak bestelako fabriken antza badu ere, atea zeharkatzean tonu ugarian afinatutako kanpaien hotsek inguratzen gaituzte: 12:00ak dira. Manuelek urrutiko kontrol baten bidez kontrolatzen ditu kanpai guztiak.

GERUZAZ GERUZA

“Kanpaiak sortzea eskuz egindako prozesua da –dio Quintanak bulegotik tailerrera salto egiten dugun bitartean–. Horrela izan da VI. mendetik, lehen kanpaiak Italian sortu zirenetik. Prozesu horrek kanpai-galdaketa batzuetan bizirik dirau oraindik”. Enpresan duela urte batzuk utzi zioten kanpaiak eskuz egiteari, baina prozesu hori euren kulturaren

geratu dela azaldu du. “Nik neuk hainbat kanpai egin izan ditut eskuz, eta nire semeak gaur egungo sistemaren bidez egiten dituen arren, antzinako prozesu hori ezagutu izan du: lokatza, arrautzen zuringoa, argizaria eta bestelako material naturalak erabiltzen ziren”.

Denborak aurrera egin ahala, kanpaiak egiteko prozesua asko garatu da, Quintanaren esanetan. “Demagun gaur egun 500 kiloko kanpaia sortu nahi dugula. Antzinako prozesua jarraituz, erritmo arinean eta behar bezalako egoera atmosferikoarekin hilabeteko lana izango litzateke. Prozesu berriekin, oster, 12 egun baino ez dira behar”. Saldañan 16 pertsonak egiten dute lan, eta lantoki bi bereiz daitezke bertan: galdategia eta kanpaiak perfiletzeko tailerra (afinazioa eta soinu probak, inskripzioak, biltegia...).

Oraintxe bertan Palentziako katedra-

leko kanpaiak ditugu tailerrean gure begien aurrean. Kanpai baten bizitza zikloa batez beste 100 eta 120 urte artekoa da: “Egia da 200 urteko kanpaiak egon badaudela gaur egun martxan”. Hala ere, artisauek dio kanpaigintza ez dela kanpaien soilik zentratzen, baita kanpai-etxean ere, “kanpaiaren pisuari eutsi behar baitio”; horregatik, biak eraberritu ohi dira aldi berean. Eraberritze prozesuan kanpaiak ez dira zertan galdatu behar, batzuetan baino ez dira egiten ohiko akustika berreskuratzeko. Kanpai-etxea, berriz, egur zaharra kendu eta berria jarriz eraberritu ohi da. Gainera, sistema elektronikoa jartzen zaie kanpaiei, baina eskuz ere erabili ahal izateko moduan: “Automatizazioak betidanik erabili ohi izan diren kanpai-jotze teknikak eta estiloak ere ahalbidetzen ditu: kanpai-iraulketak, kulunkatzeak... eta nahi izanez gero, eskuz jo daitezke”.

Campanas Quintanak bezero esanguratsu ugari izan du –Madrilgo katedraleko kanpaiak eta hemezortzi kanpaiz osatutako karilloia jarri ditu, adibidez–, baina lan guztietan jarduten du mimo handiz. “Kanpai bakoitza oso garrantzitsua da guretzat –dio Quintanak–. Azken batean mende bateko iraupena izango duen pieza bakarra da”.

KANPAI-JOLEAK

Kanpaiak galdatzea obra bakarrak sortzea bada, berauek kolpatzea artea da kanpai-jotzaileentzat. Espainiako Estatuan ezkilazain ugari daude eta euren betebeharra kanpai-kolpeen ondarea mantendu eta belaualdi berriei zabaltea da: “Villavanten (Leon), kanpai-jotzaileen eskola bat dago eta bertan irakasle ezkilazain bi daude; euren helburua gaztetxoei kanpaiak jotzen irakastea da”, azaldu digu kanpaigileak. Bere jaioterrian ere badago kanpai-jole talde bat, baina soilik gizonez osatua, emakumeek sarrera debekatuta baitute: “Kanpaiak jotzea deskonexioaren sinonimoa da, inolako kanpoko presiorik gabe”, argudiatzen dute bertako kideek. Zorionez salbuespena da, munduan zehar kanpai-jole talde misto ugari baitaude.

Hirietan entzuten diren doinuek, ordua emateaz gain, jaiegunitako meza nagusiak eta hiletak iragartzen dituzte, besteak beste. Landa eremuan, oster, 20 esangura baino gehiago izan ditzaketen kanpai kolpeak entzun daitezke. Herrietako biztanleek kanpaien hizkuntza ezagutzen zuten antzina: abereak askatzeko kolpeak, *bazka kolpea*, auzota-



GERUZAZ GERUZA

Kanpaiak galdatzea prozesu konplexua zen antzina. Lehenik *terrailla* izeneko egurrezko plantillan *arra* edo adreiluzko moldean egiten zen lokatzez estalita. Lokatza sikatzeko sua egiten zen barruan, eta molde horri *kanpai faltua* jartzen zitzaion gainetik, lokatz finagoz. Azkenik, lokatz lodiagoko hirugarren geruza jartzen zen oinarrian uzta batekin, kanpaiaren benetako moldean sortzen zuena. Molde hori sikatu ondoren, kendu, erdiko *kanpai faltua* apurtu, eta beriz jartzen zen. Bi moldeen arteko hutsune edo *zuloa* 1.000 gradutara zegoen kobrezko eta estainuzko salda betetzen zen. Metala hoztean, kanpoko eta barruko moldeak apurtu eta behin betiko kanpaia agerian geratzen zen.

rrak batzeko, zor-bilketarenak... Hiletan kanpai-kolpeen artean baziren hainbat mota ere: "Hildakoaren adinaren arabera kolpeak era batekoak edo bestekoak izan ohi ziren –azaldu du Quintanak–. Herriko inor galtzen bazen, baziren orientaziorako kanpai-hotsak, itsasoan itsasargiek duten antzeko xedearekin. Oso erabilgarriak ziren laino itxia zegoen egunetan".

BILBOKO BASILIKA AUTOMATIKOA

Soinu-erlojuen tradizioa txikia da Bilbon. Hiriko 70 elizetatik soilik 26k dituzte kanpaiak, eta horietako lau bakarrik erabiltzen dira ordulari gisa: Deustuko San Pedro, San Felicisimoko pasionistak, Santiago katedrala eta Begoñako Andramari basilika. Urriaren 11n egiten da Begoñako *Amatxuaren* eguna, eta jakina da kanpandorreko kanpaiak doinuaz girotzen dutela hiria talaiak estrategikotik, funtzio liturgikoaz gain melodikoa ere bai baitute. Hain zuzen, abestiak jotzen dituzten karilloiko kanpaiak dira azken urteetan produktu eskatuenetakoa kanpaigileen artean.

Bilboko basilika ezagunean topatu dugu Enrique Franco sakristaia (Donostia, 1962), eta Begoñako sakristia bisitatu ostean kanpandorreko eskaileretatik gora egin dugu, tenpluko kanpaiak eta karilloia gertutik ezagutzeko. Asteazken ordua ematen dute, baina jaieguneetan ozen entzun daitezke *Begoñako Andra Mari* edo *Athletic Club*-en ereserkiak: "Kanpaiak iraultzerakoan haien indarra hain da handia, eraikineko fatxadak dardar egiten duela, eta barrualdean mugimendua sentitu daiteke", dio Francok.

A la madre de Dios de Begoña Banco de Vizcaya 1922 (Jainkoaren Begoñako Amari Bizkaiko Bankua 1922), irakurri daiteke bertako kanpaietan. 1922an, Banco de Vizcayak eskuz eragindako mekanismoa zuen karilloia eman zion Andra Mari basilikari, 24 kanpaiz osatua. Kanpaiak Suitzako enpresa batek egin zituen Aarau hirian, eta Quintanaren arabera, erlojuaren mekanika originala Frantziako Jura departamendukoa da. Kanpai horiek egurrezko mailuekin



Enrique Franco Begoñako sakristaia, basilikako kanpandorrean dagoen karilloiko kanpaiei begira.

kolpatzen ziren, baina 1994an basilikako dorrea eraberritu zenean Gasteizko Muruaren semeak enpresak sistema aldatu eta kanpai gehiago jarri zituen. "Lan ederra izan zen –gogoratu du Quintanak irribarre batekin–. Antzinako harritzko eraikuntza da eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Banco de Vizcayaren babes handia izan zuen".

Basilikako eraberritze-lanetarako Campanas Quintanarekin harremanetan jarri zen Aldundia, kanpaien inguruko ikerketa egiteko. "Dorreko kanpai bakoi-tzaren soinuaren analisisa egin genuen eta karilloi osoa automatizatu genuen mailu elektromagnetikoekin. Kanpaiak garbitzeaz gainera, erabilera liturgikoko bi berritza galdatu behar izan genituen, arrakalatuta zeuden eta". Kanpaietako inskripzioak ere tratatu zituzten beirazko mikrosfera batekin, brontzea ez kaltetzearen: *A la madre de Dios de Begoña año 1994* (Jainkoaren Begoñako Amari 1994 urtea) irakurri daiteke gaur egun horietako bitan. Denborak aurrera egin ahala, tenpluko mekanismo analogikotik sistema digitalera salto egin zuen eta gaur egun grabatutako 65 doinu jarri daitezke sakristiako gela txiki batean dagoen ordenagailuaren bidez, tekla bat sakatuz.

Quintanaren arabera, lana egon badago kanpaigintzan, baina antzina ez bezala, bolumen txikiko piezak eskatzen dira, eta bezeroen eskaerak maila oso altua da: "Kanpaigintzak gero eta joera nabarmenagoa du musika esparrurantz, gero eta presentzia handiagoa lortzen ari da". ●

“Estatu Islamikoak eta Turkiak mentalitate atzerakoi eta patriarkal bera dute”



Rawda Hasan, Nariman Evdike eta Manal Mohammed kurduak Siriako Iparralde eta Ekialdeko Autoadministrazioko ordezkariak abenduan Euskal Herrian egon ziren, Suargi elkartearen eskutik. Durangoko Azoka, Eusko Legebiltzarra edota Nafarroako Parlamentua bisitatu zituzten ideiak trukatzeko eta euren mezua zabaltzeko.

 AITOR ASPURU



Nolakoa zen kultura kurduaren egoera Sirian iraultza baino lehen, hau da, Baxar Al Assaden erregimenean?

Rawda Hasan: Oro har hitz egin behar da, ez soilik kultura kurdua. Mesopotamiako askotariko kulturak debekatuta zeuden: armeniarra, zirkasiarra, kurdua eta bes-telako herrienak. Antzinako hizkuntzak desagertu dira eta hori gerta ez dadin, 2012ko iraultzaren ostean, erakundeak sortu ditugu kultura adierazpenak babesteko eta horien barruan erabateko garrantzia eman diegu hizkuntzei.

Berez, Siriako Ipar eta Ekialdeko Autoadministrazioaren hizkuntza ofizialak arabiera, kurduera eta asiriera dira eta kurdueraren eta asirieraren defentsarako erakundeak sortu ditugu. Hezkuntza sisteman irakasten dira.

Jende nagusi askok kurduera galtzearen eta horretarako abiatu ditugu ekimenak. 2014tik aurrera apustua egin dugu kurduera indartzeko eta bederatzi zentro ireki ditugu. Kultura asiriarreko zentroak ere zabaldu ditugu.

Kulturari dagokionez, iraultza aurretik zeuden idazle guztiak batzen saiatu gara. Baxar Al Assaden gobernuaren menpe, debekatua zuten euren testuak argitaratzea eta horregatik askok erbeste bidea hartu zuten.

Musikaren esparruan, esaterako, 1990eko hamarkadan abeslari kurdu asko zegoen, baina ezin zituzten euren kaseteak banatu Sirian. Edonola ere, debeku bera zegoen Turkian edo Iranen, euren helburua baitzen estatu-nazioa sendotzea, euren lurralde barruan dau den beste herriak isilduta.

Zein da intelektualen eta idazleen Batasunaren lana?

Nariman Evdike: Iraultza baino lehen, idazteko kurduera erabiltzen zutenek bi aukera zituzten: horri uko egitea ala atxiloketa. Gauza bera gertatzen zitzairen herri kurduari buruz arabieraz idazten zutenei. Gure helburuetako bat da argitaratu gabeko testu horiek guztiak biltzea. Lanak, hortaz, bi ardatz ditu. Siria barruan edo erbesteren zeuden idazleen testuak batu, batzuk 1990eko hamarkadan baino lehen idatzi baitziren, eta argitaratzea.

Beste xede bat da egun idazten ari diren lagun guztiak babestea. Gure lurraldea, Kurdistan, beti alboratu dute gobernuak garapen ekonomiko edo kulturalari dagokionez, estatu batean zein bestean. Horregatik da hain garrantzitsua guretzat kurdueraz argitaratzea, idazleei au-

kera ematea horretarako, hizkuntzaren garapenean parte har dezaten.

Horrez gain, itzulpengintza batzordeak sortu ditugu beste herrialdeetako testuak, europarrak ere, kurdueraz edo arabieraz eskuragarri egon daitezen.

Badago beste batzorde bat iraultzaren testu guztiak dokumentatzeko eta gordetzeko. Gure argitaletxea dugu; Shelter. Inprimategi handia daukagu. Badugu beste argitaletxe bat ere, zeinaren eginkizuna den kurduerari buruz agertutako testuak itzuli eta argitaratzea. Liburutegiak irekitzen ari gara eta ahalegin handia egiten ari gara kurduerazko testuak arabierara itzultzeko.

Nolakoa zen emakumeen egoera iraultza baino lehen eta nolakoa da orain?

Manal Mohammed: Iraultza baino lehen emakumeek ez zuten protagonismoa gizartean. Ez soilik gehiengo kurduko lurraldean, baizik eta Siria osoan. Gehienez ere ikasteko aukera zuten, baina gero etxean geratu behar ziren. Legeak ere ez zuten laguntzen, eta gizonen eskumena zuten emazteak edo familiako emakumezkoak hiltzeko, ohore arrazoiak argudiatuta. Finean, emakumeek ez zuten autodefentsarako eskubiderik.

2012ko iraultzaren ostean, emakumeak lehen lerroa pasa dira eta horregatik bilakatu da emakumeen iraultza. Hain zuzen, emakumezkoek parte hartu dute Autoadministrazioaren eraikuntzaren esparru orotan eta, bereziki, emakumeen aldeko legeak sortzen. Ezin ahaztu, jakina, YPJ (Babeserako Emakumeen Brigadak) eta Estatu Islamikoaren

kontrako borroka. Emakumeak modu aktiboan aritu dira eta hori bistakoa izan zen Rakkako askapenean.

Presidentetza bikoitzean oinarritzen da gure sistema. Ardura postu guztietan egon behar da emakumezko eta gizonzko bana, Autoadministrazioaren egitura osoan. Berdintasun kontzeptu hori gizarteko txoko orotara eraman dugu eta alderdi guztietan sustatu ditugu emakume batzarrak.

Hasieran emakume kurduak hartu zuten beren gain eginkizun hori, baina Estatu Islamikoa garaitu ostean, emakume arabiarrek ere mugimenduaren parte dira. Eurekin batera parte hartu dugu emakume arabiarren batzarren sorkuntzan, baita zenbait gutxiengo etnikorekin ere.

Emakumearen Legea sustatu duzue, baina zenbait puntu garrantzitsu – poligamiaren debekua, esaterako –, ez daude indarrean gehiengo arabiarreko lurraldeetan.

M. M.: 2014an onartu zen legea Kobane, Jazira eta Afringo kantoietan, gehiengo kurdua dutenak. Hasieran arazo ugari izan genituen gizarteak onar zezan, baina egun handia da adostasuna. Gure helburua da emakumeak esparru politiko, ekonomiko eta militarrean indartzea. Hiru eremuak ezinbestekoak dira. Adibidez, emakumea politikoki indartsua bada, baina ekonomikoki menpekoa, ez da aurrerapenik gongo.

2015etik aurrera etorri ziren Tabqa, Rakka eta Deir Ez Zour gehiengo arabiarreko lurraldean askapenak. Ereku horietan emakumezkoen batzarrak sustatu





ditugu, baina oraindik klanen araberako mentalitate tribala indarrean da. Ondorioz, legea ez dute onartu. Hau da, Siriako Ipar eta Ekialdeko Autoadministrazioak legea ezarri arren, kantoiek ez dute berretsi. Oraindik eztabaidatzen ari dira.

Zer izango litzateke beharrezkoa Emakumearen Legea gune horietan ere onartzeko?

M. M.: Egungo egoera ez da onargarria eta kanto horietako emakumezkoen batzarrek exijitu dute onartzea, hortaz, borrokak jarraitzen du.

Legeak lege, feminizidioak gertatzen dira oraindik.

M. M.: Tamalez, bereziki lurralde arabiarretan, horrelakoak gertatzen dira oraindik. Esku hartzeko modu anitzak daude, bai Emakumeen Etxearen, Autoadministrazioaren edo justizia sistemaren bitartez. Familiak salatu ala ez, guk prozesuak ireki eta legea betearazten dugu.

Siria iparraldean eta ekialdean emakumezkoen bi mehatxu handienak Estatu Islamikoa eta Turkia al dira?

M. M.: Bai, mentalitate patriarkal eta atzerakoi bera dute. Gure mugimendua eta emakumeen parte hartzea bizitza politi-

koan mehatxua da eurentzat. Daex zein Turkiako Gobernuak emakumeen kontrako erasoen parte dira. Adibidez, 2018an Turkiak Afrin inbaditu zuenean, YPJko borrokalari baten gorpua mutilatu zuten, Barin Kobanerena. 2019an Turkiak inbasioa egin zuenean Tall Abyad eta Serrekaniye artean, Avrin Halaf politikariari gauza bera egin zioten, erail eta gero mutilatu. 2020ko ekainean Turkiako drone batek Kongra Starren (Emakumeen elkarten konfederazioa) bilera bat bonbardatu zuen eta hiru kide hil zituen.

Daex-ek, bestalde, bereziki kolpatu ditu emakume arabiarrek. Shadaddiko Autoadministrazioan zeuden bi emakume hil zituzten 2020an. Aldez aurretik mehatxatu egin zituzten, baina ez zituzten euren ardurak utzi.

Autoadministrazioaren aldetik, zer izan beharko litzateke Sirian bake iraunkorra lortzeko ezinbestekoa?


R. H.: Oso zaila izango da, atzerriko hainbat indar baitago Sirian. Herrialdea geostrategikoki garrantzitsua da Errusiarentzat eta AEBentzat. Bi indar horiek akordioa lortzen badute soilik izango da posible bakea, baina errusiarren eta amerikarren helburu bakarrak euren interesak dira. Herri siriarraren aldarrikapenak eta demokrazia ez zaizkie axola.

2019an Turkiako inbasioari aurre egiteko Siriako Gobernuaren soldaduak sartu ziren zenbait tokitan, baina politikoki ez dirudi aurrerapen handirik egon denik Autoadministrazioaren eta erregimenaren artean, ezta?

R. H.: Turkiari aurre egiteko akordio militarra egon zen Erregimenarekin eta Errusiarekin, baina ez politikoki. Guk programa politikoa proposatu genion Errusiako Gobernuari. Alde militarrean gure asmoa da gure talde militarrek -Siriako Indar Demokratikoak- gobernuaren armadaren parte izatea, baina autonomiarekin. Kurdueraren ofizialtasuna ere eskatu genuen eta exijitu genuen estatuaren izen aldaketa. Orain "Siriako Arabiar Errepublikak" da eta guk "Siriako Errepublika" izatea nahi dugu. Bestelako auziak ere badaude, baina nagusia Siriako boterearen deszentralizazioarena da.

Bestalde, AEBek jarraitzen dute PKK erakunde terroristatzat jotzen, nolakoa da horiek aliatu izatea?

R. H.: Amerikako Estatu Batuekin dugun akordioa Estatu Islamikoaren kontrako borrokara mugatzen da. Bistakoa da amerikarrek akordio historikoak dituztela Turkiarekin eta ez dietela horiei uko egingo. ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Itzalaldien itzalak

New York, 1977ko uztailaren 13a. Goizeko 08:37etan tximista batek Hudson ibaiko Buchanan House estazio elektrikoa jo zuen. Hurrengo minutuetan ekaitzak hornikuntza sareko beste puntu batzuei eragin zien eta, azkenik, 09:27etan *Ravenswood 3* sorgailu nagusia itzali zen eta, horrekin batera, hiri osoa. Hornikuntza elektrikoa biharamunean itzuli zen, 25 ordu geroago.

Zenbaitek espero zuten ondorioak handik bederatzi hilabetera nozituko zirela, jaiotza tasa bat-batean haziko zela, 1965eko azaroko itzalaldian ustez gertatu bezala. 1965ean matxura elektriko batek 13 orduz hornikuntzarik gabe utzi zituen AEBetako ekialdeko kostaldeko 35 milioi biztanle. Beste zereginik gabe eta kandelen argitan, askok sexu harremanak izan omen zituzten eta horrek jaiotze-tasaren bat-bateko igoera eragin omen zuen. Datuei begira, ordea, handik bederatzi hilabetera ez zen inolako *baby boom* izan; komunikabideek elikatutako mitoa baino ez zen. Gainera, 1965eko hartan itzalaldi elektrikoa bai, baina ez zen ilunaldirik izan, hornikuntza egu-nargiz egon baitzen etenda.

1977ko itzalaldiaren ondorioak berehalakoak eta oso bestelakoak izan ziren. Herritarrek, nagusiki Bronx, Brooklyn eta Harlemeko gunetakoek, kaleak hartu zituzten, dendak arpilatu, autoak eta eraikinak erre. Suhiltzaileek 1.307 sute itzali behar izan zituzten eta poliziak 3.776 pertsona atxilotu zituen egun bakarrean.



VIEWING NYC

Brooklyngo Macon street, 1977ko uztailleko itzalaldiaren ondoren.

Uda hartan David Berkowitz *Samen semea* serieko hiltzaileak beldurra zabaldu zuen hirian eta zenbaitek horri egotzi izan dio herritarren erreakzioa. Uda hartako bero itoak ere eragina izan omen zuen herritarren aldarrean. Baina kontua da New York krisialdi ekonomikoa larri zegoela, zerbitzu publikoak na-

barmen murrizten ari zirela, delinkuentzia hazten... Hala, itzalaldien erromantizaziotik urrun, New Yorken 1977ko egun hartan gertatutakoak erakusten du, gainbehera ekonomikoari krisialdi energetikoa erantsiz gero, herritarren ezinegona dela eztanda egiten duena, eta ez jaiotza-tasa. ●



WESSIX ARCHEOLOGY

Zeltak, Alpeetatik Britainia Handira

York, Harvard eta Vienako unibertsitateetako genetisten arabera, Brontze Aroaren amaieran, duela 3.000 urte inguru iritsi ziren, eta ez beranduago, beste zenbait historialaririk uste bezala. Gainera, *Nature* aldizkarian argitaratu berri den ikerlan genetikoak beste bi on-

dorio nagusi atera ditu. Batetik, zeltak ez ziren Kaukasotik iritsi, Hallstatt kulturatik baizik, hau da, Alpe inguruetatik. Eta, bestetik, aldaketa genetikoak ez zen bat-batekoa izan, inbasio azkar batek eragin da; alderantziz, zeltak hainbat mendetan gradualki hedatu ziren uharteetan. ●

Sagardoak kontatzeko gauza asko ditu

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Hernani eta Astigarraga inguruetako jendea, ziur zuek ere sekula jaso duzuela txotx garaiaren erdialderako lagun baten deia, sagardotegira joan nahi dutela eta nora jo gomendio eske. Ematen dizkiegu gure gustukoaren pistak, baina batzuetan berandu izaten da eta dei bat baino gehiago egin behar izaten dituzte lekua topatzeko, eta gu erreferentziak eman eta eman. 2022ko denboraldia hastear dugu eta badut konponbidea lagun horiei bidea errazteko: ARGIAk abenduan publikatu duen Sagarrondotik gehigarria. Bertan aurkituko dute Euskal Herriko sagardotegien gida. Kokalekuak, telefonoak, zerbitzuak...

Baina, barkatu, hori gauza praktikoetara joanda. Ez baita horretara mugatzen. Urtero argitaratzen den aldizkaria da eta sagardoaren eta sagardotegien bueltan biltzen diren gaien inguruko erreportaje eta elkarrizketak jasotzen dira bertan. *Emakumeak sagardogintzan* gaiari eskaini zaio azala azken honetan. Emakumeek historian zehar eta gaur egun sagardoari lotuta jokatzaren paperaz dihardu. Zelaia sagardotegiko nagusi Gincerain ahizpekin hitz egin du Garazi Zabaletak eta kontatzen dituzte maskulinizatutako mundu horretan hiru emakumeek -beste askoren artean- egin duten bidea.

Sagardoa eta sagardotegien kultura bereziki Gipuzkoako zonalde batekin lotzen bada ere, urtero ekartzen da paperera beste lurralde bateko ekoizleren bat. Aurten Trebiñukoa. Baditu berezitasunak, normalean itsaso ondoan egoten dira sagarrondoak bazter hauetan, baina Trebiñu itsas mailatik 650 metrora egoteak sagar barietate jakin batzuetara jotzera eraman ditu



bertako klimak. Beranduago loratzen diren Asturiasko (Espainiako Estatua) zenbait barietate egokitu dira ondoen Trebiñuko lursailak eta horiekin ari dira lanean -horiekin bakarrik, bertako sagarrarekin ekotzitako sagardoa egiten baitute- azken 30 urteotan, ardoaren erreinuan sagardoari ate txiki bat ireki nahian.

Eta ia ipuin baten modura kontatuta, Kazakhstan, Kirgizistan eta Txina arteko mugan kokatzen den Tian Shan mendilerroa eraman gaitu Jon Tornerrek "sagarrondoaren sorlekua" zein den azaltzeko. Orain gutxi arteko teoriari buelta emanez bi botanikariek idatzitako *The Extraordinary Story of the Apple* (Sagarraren istorio harri-garria) liburuaren pasarte bat ekarri digu aldizkaria.

Sagarra ez da tonatan bakarrik kontatzen, sagardoa litrotan soilik kontatzen ez den bezalaxe. Ez da txotx denboraldira bakarrik mugatzen. Baditu esateko gauza asko. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.

Ongi etorri denei, komunitatera!



"Euskaraz, kritiko, berdintasunaren banderaren azpian, ameslariak, iraultza txikien su piztaileak zaretelako!"

Bergarako Maitane

"Kazetaritza independentea gustuko dut eta ARGIA da niretzako independentziaren eredu argi bat"

Portugaleteko Jon

"Aspaldi genuen buruan... Baina orain, egoera honekin guztiarekin (koronabirus kontuak) inoiz baino argiago ikusi dugu ARGIA dela bultzatu nahi duguna!"

Eskerrik asko egiten duzuen lanagatik. Segi horrela"

Azkoitiko Alaitz

"ARGIAren talde lanaren kalitatea eta independentzia bereziki preziatzen ditut. Eta Jaurilaritzaren ezagutza falta ez ulertzen"

Izurako Maixan

"Ez dut norabide eta ahots bakarrek komunikabiderik maite; kritikoa, elkartasunezkoa, herritarra eta euskalduna den oro bultzatu nahi dut"

Iruñeko Orreaga



AZPIAK EGITEN

Landareei azpiak egitea boladan dago. Aziendari, ukuiluan edo kortan duen etzalekua gozatzeko, azpiak egiten zaizkio. Ohe bigungarriduna izateaz gain, gero hortik sortuko den simaurra aberastuko du azpigaiak, eta behar bezala luartzeko lagunduko dio. Garoa (*Pteridium aquilinum*), laboreen lastoa, arta zuztarra eta gainzurikina (*Zea mays*), belarra, txilarra (*Erica spp.*), otea (*Ulex spp.*), artelazkia (*Quercus suber*), orbela, leka, zerrautsa, txirbila eta edozein hondakin organiko gozo izan daiteke aziendaren etzalekurako aproposa.

Landareei ere egiten zaie bada azpia. Erdaretan, "mulching", "paillage", "acolchado" esaten zaio ekintza horri. Harrigarria da, ordea, euskaraz ez izatea, us-tez behinik behin. Hortik etorri zitzaizkidan landareei "azpiak egin" erabiltzen hasia, aziendari egiten zaion ia gauza bera baita.

Azpiak egiteak onura ugari dakar. Landarearen sustraiak hotzetik bezala berotik babesten ditu. Baita lurra bera ere; hala, haren bizitzari laguntzen dio, haizearen eta uraren higadura eragozten du eta lurra bera ez da trinkotzen. Era berean, txartzat ditugun landare edo belarrak ateratzea murrizten du. Azpigai organikoa eta naturala bada, lurrazala etengabe ongarrituko du. Hezetasunari ere eutsiko dio.

Azpitarako material ugari erabil daiteke: lastoa, pinu azala eta orria, txirbila, paper birrindua, orbela, inaurkina, belar ondua edo moztu berria, hur (*Corylus avellana*) nahiz intxaur (*Juglans regia*) nahiz arbendola (*Prunus dulcis*) azalak,

legarra, luarra eta abar. Batzuk ongarri dira eta desegin egingo dira; beste batzuek luze iraungo dute... Aurrekontua, erabilera, eman nahi den itxura eta abarren eskutik etorriko da aukeraketa. Ez da gauza bera barazki-baratzean edo lore-baratzean azpiak egitea. Baratzean, lanen hurrenkera eta lanerako erraztasuna izan daitezke arrazoi nagusi, eta lorategian itxura edota forma.

Kalterik ere ekar dezake azpigaiak. Intxaurrendoren hostoaren edo zokotenaren jariakinekin landareak kaltetu daitezke. Kakao alearen zorroak (*Theobroma cacao*) ere erabiltzen dira, baina kontuz, animalientzat toxikoa izan daiteke, txakurrentzat bereziki. Kimiko ki tratatutako edota tindatutako egur ezpalak ere eskaintzen dituzte; kontuz horiekin ere, batez ere kreosotarekin tratatuta badaude, ukitzen dituen bizidun onuragarri ia guztiak akabatuko ditu: zizare, marmutxa, bakterio...

Euskal Herri hezean bi dira azpiak egiteak ekar ditzakeen kalte nabarmenenak. Lehen, hezetasuna areagotzea. Lehen gutxi eta azpiak urari eusten dio, landareen ipurdiaren bueltan gaitzak sortzen dituzten onddoak harrotuz. Horri aurre egiteko, baratzean taulenak altxa egiten dira, eta hala, lurraren maila igo eta lehortu. Bigarrena: sataginak diren sailetan, are eta gehiago ibiliko dira arerioengandik babestuta, azpipean harrapakari eta abarrek ezin izango baitituzte ikusi.

Gogoan izan, azpiak egin bai, baina toki edota sasoi lehorretan eta sataginik ez denetan. ●



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

IRAKURLEAK GALDEZKA



Kaixo Jakoba! Ba al dakizu esaten Zeraingo mandio tabernaren aurrean dagoen arbolatxo zer den? Horrelako arbolatxo txiki bat behar dut aterki forma hartzen duena eta ahal dela autoktonoa noski, asko gustatzen zait honako espezie hau eta ea laguntzerik badaukazun. Eskerrik asko!

✍️ Gorka Urteaga

Gustu ederra duzu. Neronek ekarri eta landatutakoa da, 1994-95eko neguan. Sagarrondo bat da. Barriate negartia da eta txertatuta dagoen tokitik hasieran behera ematen ditu adarrak baina gero, indartzean pixka bat gora ere egiten du: 4-4,50 metro arte hazi daiteke. Loraldi zuria du udaberrian eta sagartxo gorriak hosto eroritakoan ere bertan mantentzen dira, txorien gozagarri. Bere izena *Malus x scheideckeri* "Red Jade" da, baina normalean *Malus* "Red Jade" edo "Red Jade" sagarrondoa bezala ezagutzen da mintegietan. Ez da erraza topatzen... ●



Azpiak egindako taulena baratzean.

NOUSTE EKILILI

**BERTAKO EKILORE ETA KOLTZA OLIOA,
KALITATEZKOA ETA JASANGARRIA****GARAZI ZABALETA**
@TIRIKITRANN

Hamabost bat laborariren elkarlanetik sortu zen 2006an Nouste Ekilili kooperatiba, izenak adierazten duenez, Ipar Euskal Herriaren eta Bearnoren artean *-noustek*, bearnesez, “gure” esan nahi du-. Pentsa litekeenaren kontrara, ez zen olioa ekoiztea hasierako bultzatzaileen ideia. “Gure abereendako proteinak kanpotik erosi beharrean, etxean bertan egiten hastea zen lehen asmoa”, azaldu du Estebe Sallato kideak. Hain zuzen, animaliei jaten emateko ideiarekin hasi ziren ekiloreak ekoizten, baina kezka bat sortu zitzaizen segituan: zer egin ekililia tinkatzerakoan ateratzen zuten olioarekin?

**MOTORRAK ELIKATZETIK,
PERTSONAK ELIKATZERA**

Europako laguntza batzuei esker, olioa itsasontzietako motorren erregai gisa saltzen hasi ziren lehen urteetan. Laguntzak bukatzearekin, ordea, bide hori itxi eta beste zerbait bilatu behar izan zuten. “Miarritzeko Lurruma azokan, batek baino gehiagok galdetu zigun ea nola zen posible jendeak kontsumitu zezakeen olio a ibilgailuetarako erabiltzea”, kontatu du Sallatok. Ideia horri bueltaka, Frantziako Olio Begetal Puruen Institutuaren laguntzarekin, pertsonentzako olio a egiten hasi ziren pixkanaka. “Gaur egun, %100 pertsonak kontsumitzeko egiten dugu, eta guztia oso azkar saltzen da gainera. Laborari berriak xerkatzen ditugu orain”, dio.

Kooperatiban parte hartzeko, ekoizpenari dagozkion zenbait baldintza dituzte: transgenikorik ezin da erabili, lurra ezin du inolako tratamendurik jaso –eritasunen bat tarteko lurra tratatuak direnean, abereendako soilik komertzializatzen dute olio hori, inoiz ez pertsonentzat–, hezetasun aldetik ere parametro batzuk bete behar dituzte... “Nekazaritza herrikoi eta jasangarrian



dihardugun ekoizleak gara kide guztiak”, diote. Baldintza horiek betetzeaz gain, kooperatibari denbora bat ere eskaini behar diete partaideek: “Olio a botilartzten, banaketan, etiketatzen eta halakotan parte hartzea eskatzen dugu”.

OLIO INDUSTRIALETATIK URRUN

Laborarietako baten etxaldean dute kooperatibako eraldaketa gunea, Gabadin. “Hasieran eskuz egiten genuen dena, baina orain bi makina ditugu, bata etiketak jartzeko eta bestea botilartzeko”. Olio a egiteko prozesua eredu industrialetik erabat desberdina da: trituratzerakoan, hazia hotza dago kooperatibaren kasuan. “Eredu industrialean hazia berotu egiten dute, modu horretan olio gehiago ateratzen dutelako”. Berotzearekin, ordea, olioaren propietate ugari ere galdu egiten direla dio Sallatok. “Guk hotzean tinkatu eta hilabete eta erdi uzten dugu olio a; orduan, sortzen diren zikinak kendu, eta kito”, dio.

Azken urteetan, ekilore olioaz gain koltzarena ere egiten hasi da kooperatiba. Guztira, lau olio desberdin saltzen dituzte, batik bat Euskal Herriko eta Biarnoko dendetan, eskoletan eta ostatuetan: mota bakoitzeko bio olio a, eta konbentzionala. Salmentarekin laguntzeko langile bat dute kontratatuta. “Hasi ginenean ez genuen pentsatzen hain fite aterako zenik dena!”, amaitu du. ●

**EUSKAL HERRIKO
AGENDA**www.bizibaratzea.eus**Ilargia eta landareak**

Jakoba Errekondok ilargian oinarritutako egutegia aurkeztu eta gaiari buruzko hitzaldia emango du.

🕒 **Urtarrilak 21** 19:00etan

📍 **Zizurkil** Iriarte kultur etxean.

**Sendabelarrek dakitena**

Garbiñe Larreak liburua aurkezteaz gain sendabelarrei buruzko hitzaldia emango du.

🕒 **Otsailak 22** Ordua zehazteke.

📍 **Iurreta** liburutegian.

**Zure herrian liburu hauen
hitzaldia antolatu nahi?**

Garbiñe Larreak sendabelarrez edo Jakoba Errekondok baratzeaz gakoak emango dituzten hitzaldiren bat antolatu nahi baduzu, idatzi bizibaratzea@bizibaratzea.eus helbidera eta berehala jarriko gara zurekin harremanetan.

MIMOS EGOSITAKO PILULA PROGRESIBOAK

Estreinako diskoa kaleratu du Donostiako Géra taldeak, hiru urtean zehar ondutako bederatzikanta biltzen dituen. Post-rock zatikatua, erritmo hauskorrekoa, egitura klasikoetatik ihes egin nahi duena, baina abestiak hala eskatzen duenean haietara itzultzen dena. Lau taldekideekin bildu gara, diskoaz eta hura inguratzen duenaz aritzeko.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Patxada handiz ekoitzi du Géra taldeak lehen disko homonimoa. Ezinbestean, dena esatera: 2018an Donostiako Egia auzoko Porrontxo jaietan lehen emanaldia eskaini zutenetik, klase guztietako gorabeherak bizi izan dituzte: hasteko, lau taldekide aldaketa –une batean taldea madarikatuta zegoela pentsatzeraino, horietako zenbaitek behin taldetik igaro ondoren musika betirako utzi dutenez gero–; eta, bigarren, pandemiak eragindako mugikortasun murrizketak, diskoa grabatzera Gipuzkoatik Nafarroara –Berako Mik estudioetara– igarotzea dezente zaildu diena. Hiru urte luze baino gehiago, beraz, estreinakoz elkartzeko hasi zirenetik lehendabizikoa lana argitaratu duten arte.

Egun taldea osatzen dute Markel Alonsok –gitarra eta ahotsak–, Denis Leizak –baxua–, Iñigo Estonbak –bateria– eta Fermin Mendazonak –gitarra–, eta laurak argi daukate: taldea osatu bitarteko gorabeherak eragin zuzena izan dute kantetan. “Kantak eginda zeuden,

baina izugarri aldatu dira prozesu honetan guztian”, azaldu du Alonsok. Ez dira konformatu abestien lehen zirriborroarekin, hozkailuan eduki dituzte luze, eta pausaldiaren ondoren, argiago bereizi ahal izan dute lastoa eta garia. Probaldiz probaldi eman diete abestiei forma definitiboa, piezek beraiek eskatzen zutenari erreparatuz: zenbaitetan –*Paretak zuentzat*–en, adibidez– iruditu zaie egitura garbi eta erreplikakorrek ondo eusten zietela abestiari, eta bukle izaera eman diete; gehienetan, ordea, ihes egin nahi zutelako homogeneotasun gehiegizkotik, abestiak zatikatuzera jo dute. Baita, Alonsok zehazten duenez, progresibotasun konprimatu moduko zerbaitetara ere: “Egitura klasikoetatik ihes egin nahi izan dugu, eta kanta berberaren barruan askotariko zatiak sartu, baina kanta asko luzarazi gabe –nahiz eta bakarren bat luzatu zaigun–”. Edonola ere, diskoan *collage* sentsaziorik baldin badago, bilatutako zerbait dela ziurtatzen dute: “Gustuko dugu abesti

beraren barruan oihartzun desberdinak jasotzea. Baina, era berean, abestiak erabat osatuta egon arte ez gara gelditu. Beste ezeren gainera, borobiltasuna bilatu dugu”. Abestia borobila izateko “zati oso onak” ezabatzea iritsi dira, Mendazonaren arabera: “Gogoan dut hasiera hartan Pelax taldea asko entzuten genuela. Abestiak egitean ahalik eta konplexutasun handienaren bila ibili ohi ginen, eta atera zitzaizkigun jotzeko oso zailak ziren piezak, eta aldi berean oso ondo pasarazten zigutenak, erronka handia zirelako. Baina gero entzun eta pentsatzen genuen: zaborra da. Ez zuten funtsezkoa transmititzen”. Horregatik, hasierako konplexutasuna sinpletzera jo dute sarritan, Estonbak dioenez: “Gogoan dut trantsizio bat, oso konplexua izanagatik batera konbentzitzen ez gintuena; bueltak eman eta eman aritu ginen, hiru kolperek aski zela ohartu ginen arte”. Mendazonarentzat oso garrantzitsua da sorkuntza prozesuko bide bereiztea: taldea zerbait sortzen ari



denekoa, eta handik puska batera dis-tantziatik egindako entzunaldia. "Jotzen ari zarenean pentsa dezakezu abestiak zerbait transmititzen dizula, errealizazioak berak sortzen duen efektuagatik. Geroko entzunaldian, aldiz, askoz garbiago bereizten da zirrara benetakoa den ala errealizazioaren efektu hutsa".

ASPERTZERAINO EZTABAIDATU

Prozesu guztian, lauren artean hartu dituzte erabaki guztiak. "Gehiengoaren hitzak ez du bere horretan balio, ondo argudiatuta ez badago", diote. Formula bakarra erabili dute horretarako: aspertzerraino eztabaidatzea. "Entseatu bezainbeste hitz egiten dugu. Entsegu lokalean -Astigarragan- 'kanpoan egoten direnak' bezala ezagutzen gaituzte. Badago jendea uste duena ez dugula entseetzen. Eta, tira, inoiz joan izan gara lokalera eta kanpoan hitz egiten gelditu". Abestien letrak ere tankera horretan sortu dituzte. Gehienetan zati instrumentalak egin dute aurrena, eta gero, horrek iradokitzen zienaren araberrako letrak osatu. Pare bat kasutan, prozesu bateratua izan da. "Gutako norbaitek ikusten zuen film bat, edo irakurtzen zuen libururen bat edo artikuluren bat, eta kolpetik iruditzen zitzaion horrekin lotutako letraren bat egin behar genu-

la", oroitu dute barrez. Alonso, esaterako, euskararen eta japonieraren arteko loturekin tematuta ibili zen garai batean, eta Elhuyarreko artikulua bat irakurri ondoren, diskoko bi kantaren hitzak sortu zituzten -*Kuroi tori* (txori beltza) eta *Shiroi tori* (txori zuria)-. Taldearen izenak ere jatorri bertsua dauka: "Barre egiten duen pertsona txikia" esan nahi du japonieraz. *Mitik Berant* ere oroitu dute, modu prosaikoagoan sortutako letra bat, omentzen dituen beti berandu iritsi arren beti dena ondo ateratzen zaien horiek guztiak - superheroi trazako izena emanez-.

Kasualitatea eman dezake Beran grabatu izanak, baina diskoak dakartzan oihartzunak bete-betean kabitzen dira inguru horretan azken hamarkadetan egin den soinu moldean. Erreferentziaz galdetuta, bote lasterrean atera dira, Pelaxez gain, Borrokan eta Dut, eta taldekide bakoitzak dakartzanak: Queens of the Stone Age aipatu du Leizak, adibidez, eta Kurt Vile Estonbak, talde barruan bertan dagoen kontrastea agerian utziz. Mendazonari, aldiz, iruditzen zaio zaila dela diskoa erreferentzia zehatz batzuekin identifikatzea, eta, zeharka, beren musika ibilbideko klase guztietako oihartzunak biltzen dituela bere baitan. "Denok daramatzagu urte batzuk mu-

sika munduan, eta taldearen lehen lana izan arren, diskoak heldutasun puntua dauka". Diotenez, ez dute deus apurtzailerik egin nahi izan: "Entzuten dugunaren lagin bat erakutsi nahi izan dugu, ez gehiago. Ezer lortu nahi izatekotan, gu geu egindakoarekin gustura geratzea biltzen genuen". Zentzu horretan, eroso daude gitarra-baxu-bateria formatuan: "Ez dugu sintetizadore eta tankerakotik sartu nahi izan. Ahotsak lantzen saiatu gara, eta, batez ere, konposizioan jarri dugu indarra".

Fetitxe bezala, diskoa formatu fisikoan ateratzea erabaki dute -Jone Laspiurrek egin die azalaren diseinua-. Bide batez oinarrizko gastu batzuei aurre egiteko balioko die. Grabaketa, adibidez, luze samar joan zaie azkenerako, nahiz eta prozesuarekin "izugarri gustura" dauden. Zuzeneko baten gisara grabatu dute diskoa, Leizak azaldu duenez: "Sorkuntza prozesua denok lokalean batera egin genuenez, ez zeukan zentzu handirik diskoa pistaka grabatzeak". Zuzenekoa eta diskoa tonu berean egon daitezzen bilatu dute, hartara ziur baitakite diskoko soinua zuzenekoan defendatu ahal izango dutela. "Denoi gertatzen zaigu diskoan izugarrizko soinua duen talde bat ikustera joan, eta zuzenean dezepzionatzea. Ez dugu hori izan nahi". Gra-



baketak primerako oroitzapenak utzi dizkie. “Prozesua asko luzatu da, baina gozamen hutsa da Maiklekin (Aitor Garcia) lan egitea: xehetasun guztiei begiratzen die, arretaz entzuten zaitu, eta oso erraza da berarekin adostasunera iristea. Sekulako artista da”.

KOMUNITATE GERO ETA MURRITZAGOA

Musika eta taldetasuna lotuta ulertzen dituen kulturaren parte sentitzen dira Gérakoak, baina kontziente dira batio horiek gero eta ahulagoak direla: “Eszena trantsizio bat egon da, eta gu-rea murriztuta geratzen ari da. Gero eta gehiago, pertsona bakarrak bere etxean egiten du guztia, norberak ego-si eta norberak jan”. Alde batetik, teknologia berrien ondorio dela iruditzen zaie, egun ekoizpen oso duinak egitea edonoren esku dagoelako; baina, batez ere, gizarteko indibidualizazio prozesu zabalagoarekin lotu dute: “Ez dago edonoren esku musika talde batek dituen gastu guztiei aurre egitea: lokala, anplifikadoreak, instrumentuen konponketak... Lehen eszena askoz ere gaztetxeroagoa zen, eta aukera zenuen nahiko erraz kontzertuak emateko, edo bizilagun elkartearekin hitz egin-da entsegu lokala lortzen zenuen. Bai-

na gaztetxe mordoak bota dituzte, eta egun, edo ekonomikoki merezi dizu, edo ez dizu merezi: jendeak ahalik eta gutxien gastatuz ekoitzi nahi du, babilzko arrakasta batean pentsatuz. Guk taldearekin dirua galtzen dugu, baina ulertzen dugu hamasei urteko gazte batek agian ezin diola inbertsio horri aurre egin”. Eszena aldaketa ez da auzi estetiko hutsa, haien ustez, prekarizazio prozesu baten baitan ulertu beharreko zerbait baizik.

“**DENOI GERTATZEN ZAIGU DISKOAN IZUGARRIZKO SOINUA DUEN TALDE BAT IKUSTERA JOAN, ETA ZUZENEAN DEZEPZIONATZEA. EZ DUGU HORI IZAN NAHI**”

Nabari dute, era berean, musika industriari formatu desplazamendu bat gertatzen ari dela: “Ematen du musika

munduan musika jotzearekin bakarrik ez dela nahikoa. Musikari izateaz gain, izan behar duzu bideo ekoizle ere, saltzen dena jada ez delako abestia soilik, ikus-entzunezko bat baizik –zeinetan abestiak garrantzia berezia duen, baina ez horrek bakarrik–. Zuzenekoetara ere igaro da espektakularizazio hori, nahiz eta ez zaien kontu berria iruditzen. “Kontzertu bat betidanik izan da musika baino zerbait gehiago. Non dago horren muga? Zaila da esaten, baina ez da batere fenomeno berria, gertatzen ari da gutxienez *Video Killed the Radio Star*-en garaitik”. Beraiek, halere, musika egin nahi dute, ez besterik. “Bideogintza gustatuko balitzaigu ez genuke arazorik izango mundu horretan ere sartzeko, baina ez zaigu gustatzen”.


Lau taldekideek batera kontzertu pare bat baizik ez dute eman: lagun batzuen etxean bata, eta Alegiako Gaztetxean bestea, orain hiru urte. Sare sozialetako lanak taxutu ostean, kontzertu berriak emateko gogoz dira laurak, eta baita kanta berriak egiteko ere. “Orain dena desberdina izango da, laurok batera egingo ditugulako hasieratik kanta berriak”. Eta gehitu dute, berriz: “Ziur gaude bigarren diskoa oso interesgarria aterako zaigula”. ●





LIBURUA

Literaturari



SANTIAGO BASALLO

INFINITUA IHI BATEAN

IRENE VALLEJO
ITZULTZAILEA:
FERNANDO REY

PAMIELA, 2021

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Irene Vallejo idazlearen liburu hau 2019an argitaratu zen gaztelaniaz. Interes gutxikoa izango zelakoan aritu zela esan izan du autoreak elkarrizketaren batean, eta harriduraz hartu duela izan duen arrakasta. Hainbat sari jaso ditu; besteak beste, Espainiako Saiakera saria eman zioten 2020an.

Saiakera bat da *Infinitua ihi batean*. Literaturaren historia bat. Literatura maite duen autore baten lumatik idatzia. Ikasketaz filologo klasikoa da Vallejo, eta saiakera idazteko erabili dituen tonuan eta estiloan nabari zaio proposatzen duen horrekiko interesa eta pasioa. Tonu akademikoa darabil, beroa eta goxoa; estiloa ahozkoatasunetik gertu dago. Bidaia liluragarri eta abenturazkoa Alexandrian hasten da, bertako liburutegia nola sortu zen kontatuaz. Literaturaren ertz uga-

riez ari da hainbat kapitulutan: idazleak, liburu objektua, liburutegiak, ipuin kontalariak, irakurleak, literatura irakasleak, liburu saltzaileak, kontu asmatzaileak, editoreak, liburuzainak, liburu dendak eta abar luze bat. Ekintzaren garaiotan behatzearen, hausnartzearen, pentsatzearen beharraz ere badihardu liburuak. Literatura den mundu zabal horri izugarriko omenaldia egiten dio Vallejok. Maitasun erakustaldi handia da.

Ematen dituen datu, bertsio eta informazio guztiak irakurrita, Vallejok ikerketa sakon eta zehatza egin duela eta liburu urteetako lanaren emaitza dela ondoriozta genezake.

Konbinazio orekatua eta harmoniatua lortzen du autoreak: saiakera batek eman behar dituen datuak ematen ditu eta ikerketa baten zehaztasuna du, alde

batetik. Asko ikasten da 450 orrialdeetan barrena. Eta, bestetik, ahozkoatasunaren magiak eta gertutasunak limurtu egiten gaituzte, Xerezaderen kontakizunek egiten duten bezala.

Fernando Reyk bikain itzuli duen liburu hau urte aldaketarako zubi izan dela aitortu behar dizuet. Liburu honekin ibili dut 2021etik 2022rako bidea. Urteko azken liburu eta urteko lehena izan da. Pena izugarria eman dit bidaia amaitzear zela ohartzeak, eskumako aldean gero eta orri gutxiago izateak, liburuaren pisua ezkerreko eskuarekin eutsi behar izateak. Letra hauen lerroetatik infinituki bidaiatzen jarraitu nahi nuke. Irakurketa itxaropentsua izan da, zalan-tzarik gabe.

Irakurketa ugariko urtea izan dadila 2022a, urte berri on! ●



MUSIKA

Broken Brothers: "Berandu, baina hala ere aurretik"



GAZTELUPEKO HOTSAK



KATEBEGIA
BROKEN BROTHERS
BRASS BAND
 AUTOEKOIZPENA, 2021

XALBA RAMIREZ

Broken Brothers Brass Band: Iruñerrian azken urteetan eman diren mugimendu kultural garrantzitsuenen epizentro eta soinu banda izan da. Antimarketin estrategietan adituak, Ibil Bedirekin kaleratu zuten *Orain bat gara* bertsio arrakastatsu eta ederra kalera eta biharamunean argitaratu dituzte Youtuben diskoaren hamar aurrerapen kantu, Urtezahar egunean. Urtarrilaren 1ean, azken biak.

"Berandu, baina hala ere aurretik" dabilzala diote. Izan ere, duela urte eta erdi grabatu zuten diskoa, eta prest zuten izozkailuan, kaleratzeko une okerrenaren zain edo. Foralak etorri arte dantzan egoteko deia egiten dute. Joxe Ripiauk zioen "aquí no hace falta cama, aquí nadie va a dormir" eta Brokenekoek "a casa no, a casa no!". *Kaletarrak* abestian propo-

satzen digute Iruinkokoaren jauzietako baten bertsio new orleansdarra.

Jakina da New Orleansgo estilotik abiatuta dabilzala Iruñerria belzten. Argaren emariarekin bat egiten dute, bertako letrekin, bertako moldeekin eta komunitatearekin elkarrizketa etengabe. Jazz disko bat da, galdetzen duenarentzat. Baina kalekoa. Eta batez ere, Iruñekoa. Mezuak argiak ditu ere: "Gure auzoan Gucci gutxi baina North Face gehiegi".

"Agur jaunik ez da gaurkoz onartuko", Arestiren hitzekin irekitzen dute Broken Sistersek, harmonia arma gisa erabiliz. Arestirekin elkarrizketa irekita ere "San Simon eta Ron Brugal, joan zen gaua ta *mañaneoa* heldu da" dioen *Joan zen gaua* eta *Badut mailu bat* kantutzarretan. Louise Michel anarkistari egingdako omenaldi zoragarria ere aipa

dezagun, 1871; Parisko Komunatik gaur arte, langile guztiok dantzan.

Disko honek, gainera, badu kale kondaira harrigarri bat: Chill Mafiako Kiliki Frexko, FlakoFonki eta Ben Yarten kolaborazioa dago diskoan, Joseba Tapiarekin batera. "Azkenean kolaboratu dute" pentsatzen dute gazteen jarraitzaileek (badakizue, Solano bezain guapoak, Tapiaren gisa kondairak). Baina esan dugun bezala, diskoa duela urte eta erdi grabatu zuten, eta Chill Mafiakoak iazko urtarrilean ezagutu genituen Iruñerriatik kanpo. Hau da: guk ezagutu genituen erako grabatua zuten kantua!

Iruñerrian sustraitzen ari da musika beltzaren tradizioa, elkarte eta eragile saldoarekin. Atlantiko Beltzaren ildoan, argia da estrategia. "Kalean egingo dugu" da aldarria, "katebegia" da kodea. ●



Erbestea ez da turismoa, baina behar du kronika

  XALBA RAMIREZ

Jose Luis Alvarez *Txillardegi* hil zela hamar urte bete dira. Efemerideek ematen dute aitzakia biltzeko, eta ekimenak sortzeko. Donostiar euskaltzale eta ekintzailearen gogoia omentzeko, zer hoberik liburuak baino. Zelulosa eta tinta ekarpen erraldoia utzi baitzuen atzean.

Susa argitaletxeak batu ditu idazlearen bidaia kronikak, eta bestelakoak. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan *Anaitasuna*, *Punto y hora*, *Plazara*, *Argia* eta *Zeruko Argian* argitaratutako testuekin egin dute bilduma. Txillardegi artikulugile, ipuinlari, eleberrigile eta saiakeragileaz gain, "aitortu gabeko Txillardegi bat daukagu hemen, aitortu gabeko genero literario eder eta baztertu baten eredu gorenena" Koldo Izagirren ustez.

Txillardegiren bidaia kronikak ez dira, noski, turistaren bidaia arruntak. Erbesteren zegoelako batetik, berezko

jakintza egarri batekin zihoalako, beste-tik: "Exilioa gehi jakin-mina Txillardegi, mundua gehi Euskal Herria, Txillardegi".

Donostiako San Telmo museoan izan da hitzaldi-aurkezpena. ARGIAko Gorka Bereziartuak argi esan du: "Txillardegiren kronikak biltzen dituen liburu hau ospatzeko moduko zerbait dela uste dut. Erakusten digulako gauzak bestela egiten zirela idatzi ziren garai horretan".

Bereziartuak azpimarratu du ez duela "idealizatu" nahi 1960ko eta 1970eko hamarkadetakako kazetaritza -bizi zuen krisi, arrisku eta prekaritateagatik-, "baina Txillardegiren kronika hauek badute etorkizunari egindako dei bat. Gaur egungo kazetariak beste era batez begiratzera gonbidatzen gaituztenak; dena datu hotzetara mugatu nahi duen garai horren tranpetatik ihes egitera. Gure zer eta nola guztien kronista izatera gonbidatzen gaitu".

KRONIKAK LIBURUAREN AURPEZPENA

NOIZ: urtarrilak 13

NON: Donostiako San Telmo museoa




Txillardegi "oso humano, oso gertuko agertzen da. Bere ondora eramaten zaitu", Juan Luis Zabalaren ustez. Kezka ere adierazi zuen, euskara batuari Txillardegik egindako ekarpena nola ulertzen den egun. Chill Mafia taldea ekarri du hitzaldira -publiko edadetuaren barreak entzun dira, eta eskerrak ez duela Chill-Ardegi gisako bromarik egin-, *Kiliki Freskok* elkarrizketa batean Sabino Aranarekin lotu zuelakoan euskara batua. "Euskara batua garbizalekeriaren kontra" egin zela azpimarratu nahi izan zuen.

Koldo Izagirrek osatu du gogoeta. Sabino Aranek eskultura bat du Bilbon: "Euzkadi da euzkotarron aberria" leloarekin. Txillardegik grafitti xume bat Antiguán "Euskara da euskaldunon aberria". Aitorpena ez delako zorizko. Aitorpena borrokatu behar da. Memoria bezala. ●



Hitz geizidunak

Gaia: eraikinak

 <p>XABIER ESKISABEL</p>	1 BALDARRA ----- 1	MEN- DIARTEKO IGAROBIDE ----- IZAERA EGOKI	2 ROENTEGN	BOKAL ERRE- PIKATUTA ----- BEDERATZI- GARRIN HIL		2	
	KENKETAREN SINBOLOA ----- MAKILA GAKODUN	ZAKURRA ----- EINSTE- NIOAREN SINBOLOA	UNEKOAREN AURREKO EGUNA ----- DERRIGO- RREZ	TXANTXAZA- LEA EZ DENA ----- 4			
AHOZ ----- ADORE GUTXIKO	EPAILEAK EMANDAKO ZIGORRA ----- KILOA	ASTINALDI, JIPOI ----- BELDURTI	ZUGARRA- MURDIKO AUZOA ----- ZILEGIA	HILOBI ----- GIZONEZKO IZENA	JAINKO GREKOA ----- LITROA	 <p>XABIER CAÑAS</p>	3
TONA ----- SALBU	DA, NIRI ----- BILO	ESPARRU ----- METAL NOBLE ZURI	BASAMOR- TUKO BERDE- GUNE ----- EDARI ALKO- HOLIKO	MAPA BILDUMA ----- ARRAS, ZEHARO	UMORE ----- GIPUZKOAKO HERRIA		
3 EZEN	SAKAN, HARAN ----- KLERA	BIZKAIKO MENDIA					

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPİKATU GABE.

2				1	9			
	5	7				2		
			6	4	5			
		8	7					6
	9	5				8		
8		5		2	1			
	3		7					
		9	1			6		
	8	6						4

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Gauza, zer
2. Hedatsu
3. Iritzi, uste
4. Fetua elikatzeoko organo
5. Argitasunik gabea

EBAZPENAK

1. IZAKI
2. ZABAL
3. ABURU
4. KAREN
5. ILUNA

5	8	1	7	6	2	9	1	8	5
4	7	1	8	3	2	7	4	6	9
3	2	7	4	5	8	1	6	9	8
8	6	9	5	3	2	1	4	7	7
7	9	4	5	1	6	3	8	2	2
1	2	3	8	7	4	5	9	6	6
9	1	8	2	6	7	4	4	5	3
3	5	7	4	9	8	6	2	1	1
2	4	6	3	5	1	9	1	7	8

			Z	I	O	O	I	R	O
			E	R	V	D	V		
			A	N	A	K	L	A	R
S	V	A	L	T	A	R	B	A	R
O	I	I	S	A	O	V	Z	A	Z
B	O	H	I	S	E	H	K	I	Z
Z	R	Z	O	L	A	T	V	Z	T
E	I	L	I	N	A	V	A	K	I
S	V	A	V	N	E	N	O	N	H
			A	O	R	K	E		
			A	R	I	B	A	S	E
			A	F	M	K			

Nekane Zibiriain Basterra

ARGAK DAKARRENA
ARGAK DAROA



BIZI BERRI BATERAKO PLANAK

"Gurasoak Kasedakoak dira, baina ni Iruñean sortu nintzen. Oso gazte izan ninduten, 20 urterekin. Orain aitak 90 ditu, eta hemen ibili izan da laguntzen, ogi-mamiak prestatzen, edo patatak zuritzen, azken momentura arte. Orain, aita zaintzea dagokigu, adin handia du eta. Bilobak ere badituzte. Eta orain arte egin ez ditudan gauza asko ere egin nahi dut. Zuberoan etxe bat hartzeko gogoia ere badut, eta hemengo lagunak hara joatera gonbidatu. Plan asko ditut, espero dut denak egiteko denbora izatea".

"Dena aldatzen da: bizitzeko manera, harremanak... baina bada muin bat, arrasto bat, berreskuratzen ahal dena"

Bestela ere ixtera zihoan, baina pasa den abenduaren 10eko uholdeek azkartu dute Arrotxapeako *Arga* ostatu ezagunaren itxiera. Hogei urte eman ditu bertan Nekane Zibiriainek (Iruñea, 1952), eta hari buruz hitz egiterakoan, "etxe" esaten dio behin eta berriz ostatuari. Eta literalki izan da haren etxea: goizeko seietatik gaueko hamaikak bitarte, astelehenetik igandera, han eman ditu orduak, taberna biltoki eginez, auzokideen topaleku, eta euskararen arnagune. Erretiroa hartuta, erosleren bat agertzea du orain desio, zikloa ixteko.

✂ ANDER PEREZ 📷 JOSU SANTESTEBAN

Agur esateko egitarauarekin hastekoa zinenean heldu ziren uholdeak: Arga ibaia *Arga* ostatuaren kontra.

Bere tokian gaude eta. Egun hartan hasten ginen agurreko ekintzekin. Ni goizeko seietan jaiki nintzen, eta barra prestatu nuen, pintxoekin eta. Taberna barruan nintzen. Orduan hasi zen ura sartzen, sartu eta sartu, ez zen gelditzen. Argirik ez zegoen, baina ikusten zen de-sastrea. Pena da horrela bukatzea. Baina berehala etorri zen jendea laguntzera. Jende asko ibili zen lanean, auzo guztian. Ez dakit esplikatu sentimendua.

Listo, bukatu da zuretzako *Arga*. Bai, maleruski bai, bukatu da. Orain konponketak egin behar ditugu, dena txukun-txukun uzteko, hartzeko prest dagoen euskaldunen bat aurkitzekotan goxoki har dezan. Baina ez badut inor atzematen sei hilabetetan, orduan bai, bukatutzat eman beharko dut.

Zergatik da hain zaila inor aurkitzea?

Jendea beldur da. Koronabirusa hor dago, baina izaten ahal da ere momentua zerbait lasai martxan jartzeko. Gogorra da halako toki batean lan egitea, baina nik ez dut sufritu batere. Pentsatzen dut jendeak ez duela nire ikuspuntutik begiratzen, lantoki bezala ikusten dute, eta kito. Eta lanerako lekua da, baina baita ere goxoki egoteko leku bat. Auzoko ostatu bat da, eta euskaldunen biltoki ere bihurtu da. Etxean bezala sentitzeko txoko bat.

Nola hasi zen dena?

Ni emazte bakarra nintzen. Bi haur nituen, eta ez nuen etxerik, ez nuen ezer. Lan egiten nuen: egunaren erdia Zangozako mankomunitatean, haurrak eta helduak zaintzen. Eta beste erdia handik hona, edozein lanetan, garbiketean, ostatutan, edozer. 2001ean *Arga* hartzeko aukera sortu zitzaidan. Orduan baratzeak zeuden oraindik hemen inguruan. Behar

"Pentsatzen dut jendeak ez duela nire ikuspuntutik begiratzen, lantoki bezala ikusten dute, eta kito. Eta lanerako lekua da, baina baita ere goxoki egoteko leku bat. Etxean bezala sentitzeko txoko bat".



nuen nonbaiten lotu, nire lanpostua izateko. Gutxika hasi nintzen, ostatua zaharra zen, zikina, itsusia. Aldatu nuen barra eta sukaldea. Egin ditut konponketak. Eta ongi atera zait, bezeroei esker. Ez dut zorrik. Zer gehiago eskatzen ahal dut?

Ez zara beti hemen bizi izan.

Ez. Iparraldean ere bizi izan nintzen.

Iparraldean ikasi zenuen euskara?

Txiki-txikia nintzenez, Kasedako, gurasoen herriko jendea Nafarroa iparraldera joaten zen lanera, egurretar. Itzultzerakoan hemendik pasatzen ziren, eta, nire gurasoak Iruñean bizi zirenez, gurekin bazkaltzen zuten, autobusa itxoin bitartean edo. Gogoan dut horietako bat beti zebilela: *"allí a la leña le dicen egurra, buenos días egun on..."*. Eta hasi nintzen koaderno txiki batean hitzak apuntatzen. Gero, Arrosadian, eskola publikora joan nintzen, erdaraz, ez zegoelako beste aukerarik. Bueno, bazen,

baina ez langileentzako. Han bazen nire adineko neska bat, altua, argala, beti beltzez jantzia. Hark esan zigun bere amak ezin zuela kalean bere hizkuntzan egin, etxean egiten zutela bakarrik.

Hor piztu zitzaizun kontzientzia?

Adinean aurrera egin ahala ikusten nuen errepresioa, baina hark jarri ninduen istorio horren aurrean. Gero, 18 urterekin edo, erdi gordeka, hasi ginen euskara ikasten, Patxi Zabaleta eta Bixente Tabernarekin. Astean bitan joaten ginen, Kaldereria eta San Agustin kaleen arteko ostatu batera. Gauero sartzen zen polizia dokumentazioa eskatzera. Hasten zara mendira joaten, erlazionatzen... eta 1975an joan nintzen Iparraldera.

Erbesteratua?

Bai.

Non militatzen zenuen?

Esaten ahal dut?

Zuk nahi baduzu, bai.

ETAn. Aurretik bitan etorriak ziren nire bila, bahitua ere egon nintzen, baina hirugarrenean alde egin nuen, torturen beldur. Gurea oso militantzia suabea zen momentu horietan. Baina gauzak itsusi jarri ziren, salbuespen egoera jarri zuten indarrean, eta alde egin genuen. 1975eko hasiera zen.

Nola bizi izan zenuen erbeste garai hori?

Gaske denboran zer bizitzen da gaizki? Bizi izan naiz primeran. Gogorra ere izan zen, noski, baina ez dut sufritu izanaren sentimendurik. Bakarrik norbait galtzen genuenean. GALen garaian sufritu genuen.

Euskara han finduko zenuen.

Gamere-Zihigako baserri batean bizi nintzen, Zuberoan. Baserri lanetan aritzen ginen, artoari kukula kentzen eta. Hangoak zuberotarrak ziren, eta hango euskara ez zen nik ikasitakoa. Deliberatu nuen bi hilabete hitzik esan gabe egotea [barrez].

Iparraldeko egonaldian indartu zitzaizun herri kontzientzia?

Noski. Hemen ere bai, baina ia konturatu gabe. Gogoan dut poliziak, atxilotzean, galdetu zidala: *"¿A ti de dónde te viene esto?"*. Eta nik erantzuten niela: *"Cuando mi padre venía a casa sucio de la obra, yo creo que ahí me entraba la conciencia"*. Hala sentitzen nuen.

1988an itzuli zinen Iruñera.

Ekarri ninduten. 1977an izan zen lehen aukera bat itzultzeko. Baina nola? Hilak zeuden, errepresioa... Ez nintzen itzuli. Gero, 1987an, hasi ziren jendea kanporatzen, autobusetan. Nik bi haur nituen ordurako, Iparraldean sortuak. Han Emilio Lopez Adan *Beltza* zegoen errefuxiatuta, medikua. Nire semea sortarazi zuen.

Giro hori guztia eraman zenuen Argara.

Bueno, gehiago da *Argan* ni nengoela, eta halakoa naiz ni. Izan da euskararentzako toki bat, toki umila, etxea.

Galtzen ari dira halako komunitate giroak?

Dena galtzen da: kontsumitzeko manera, bizitzekoa... Ez gara gelditzen ostatutan, aldatu dira harremanak. Baina hor bada go muin bat, arrasto bat, errekuperatzen ahal dena. ●

Donostia triste dagoela

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ez sartu donostiarrekin, oso sentsible dabilta eta. Egia esan, a ze ratxa: kendu dizkiete estropadak –eta inori inporta ez zaion arraun-demaren aitzakian parte zaharrea txikoteatzeko plan-plin-plana–, kendu dizkiete santumaxak –lehen esandakoa egiteko beste motibo bat, baina Gucci gorabehera baserritarrez mozorrotuta– eta orain kendu diete danborrada –eta 19ko gauean etxean geratu beharko duten gazteek joko duten *Iriyarena* izango da, inoizko literalenez gain, inoizko tristeena–.

Triste, hori da hitza. Tristurak blaitzen du Irutxulo. Egunak triste. Gauak tristeago. Tristeak dira Donostiak emititzen dituen mezuak. Eta egin egingo den –aber Urkullu, utzi niri idazten– haurren danborrada deskafeinatuaren detaileak esplikatzen udal-komunikatua, hau jarri du norbaitek: “Urte batzuk barru, gogoratzen dugunean, ez dugu Alderdi Ederren bildutako ehunka haurren irudi bereizgarri hori izango, udaletxeko erlojuak 12:00ak jo eta Donostiako Martxa noiz entzungo zain eta urduri. Baina,aldi berean, gogoratuko dugu, guztiok pixka bat gure aldetik jarrita, haur danborrada beste formatu batean egin ahal izan zela”. Aix, ez, ez naiz hunkitu, zerbait sartu zait begian, besterik ez.

Baina zerbait egin behar da tristura honekin, benetan, zeren kontuak galbide beretik segitzen badu, hemen umorea ez du piztuko ezta aurten Europako Gabonetako Hiriburu izateak ere, zeinak prometatzen duen Donostia kokatzea nazioarteko eguberrien mapan, aurretik titulu hori jaso duten Torrejon de Ardoz edo Medina de Riosecoren pare –erraz esaten da–. Asko kosta da izendapen hori lor-

KONTUAK GALBIDE HONETATIK SEGITZEN BADU, HEMEN UMOREA EZ DU PIZTUKO EZTA AURTEN EUROPAKO GABONETAKO HIRIBURU IZATEAK ERE



San Sebastian, parte zaharreko pintxo batzuk pagatu ostean (Grekoa, 1610-1614; olioa mihise gainean).

tzea, seguru. Lehenbizi konbentzitu behar izan baitira ulermen estua duten betiko patxikontrak: begi hauekin ikusia dut udal pleno batean jendaila hori eskatzen Gabonetan argi gutxiago jartzeko, gastu asko zela eta abar. Belarri hauekin entzuna dut orduan alkateordea zen Ernesto Gasco, bizi-tza asko salbatu zituen interbentzio bat egiten: “Egunak laburragoak dira, jendeak problema depresibo gehiago du, tristura handiagoa... historikoki egoera horiek saihesteko jarri izan dira Gabonetako argiak”.

Hau dena kontatzen ari naiz zeren joan den astean, liburu-aurkezpen bat zela istorio, aukera izan bainuen parte zaharrea pixka bat paseatzeko. Eta “hiriaren bihotza eta sabela” hori baldin bada, punpa gutxi eta ultzeraren bat bai, gutxienez. Pertsianak jaitzita, tabernak salgai, laster eror daitezkeenei buruzko zurrumurruak. Ostalariek “bertako bezeroaren nolabaiteko urrutzea” sumatu omen dute. Ez dago deretxorik. Turistek kruzeroa abandonatu eta tabernak egoera zailenean daudenean, ez diete ba donostiarrek muzin egiten lau euroko pintxoak pagatzeko betebeharrak zibikoari?

Eskerrak etxera itzultzeko kotxean sartu nintzenean argi batzuk ikusi nituela: “Bitcoin Exchange” dizdizka Bulebarreko lokal batek; Hernani kalean zerbait saldu nahi duen pantailatza bat, lehen Batzokia zegoen lokalean; Abenidan Porsche baten faroak, eta tipo bat barruan oihuka; eta esperantza guztiak galduta Santa Katalina zubia gurutzatzen ari nintzela, errebelazio bat. Egoera honetatik ateratzeko instrukzioak, muturren aurrean, Kur-saaleko kuboetan proiektatuta: “Escuchar. Hablar. Hacer. Caixabank”. ●

ARGIA EGUTEGIA 2022

*Egunero efemeride bat.
Buruja be garen ez, historia guk ere idatz dezagun.*



10€
+4€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik
08:00etatik 15:00etara (beste orduetegiak aurrez kontsultatu).

ekologikoa, dena hobetzeko!

ekolurra.eus   

Informazio gehiago:



Babesleak:



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi